

## BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4782

*EBAZPENA, 2025eko irailaren 23koa, Ingurumeneko sailburuordearena, ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiten duena eta Refinería de Aluminio SLri (REFIAL) emandako ingurumen-baimen integratua berrikusten eta aldatzen duena, aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko, Legutioko udalerrian.*

### GERTAKARIAK

1.– Ingurumeneko sailburuordearen 2011ko urriaren 20ko Ebazpenaren bidez, ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpena egin zen, eta ingurumen-baimen integratua eman zen Ecoenergia Reydesa SLk Legutioko udalerrian, aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko, sustatzen duen instalaziorako.

2.– Ingurumeneko sailburuordearen 2012ko uztailaren 23ko Ebazpenaren bidez, Ecoenergia Reydesa SLri Legutioko (Araba) udalerrian aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko emandako ingurumen-baimen integratua aldatu eta eraginkor egin zen.

3.– Ingurumeneko sailburuordearen 2013ko apirilaren 22ko Ebazpenaren bidez, Refinería de Aluminio SLri (REFIAL) I-01-00000000316 ingurumen-baimen integratua eman zitzaion, Ecoenergia Reydesa SLri emandakoa Legutioko (Araba) udalerrian aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko.

4.– Ingurumeneko sailburuordearen 2014ko ekainaren 2ko Ebazpenaren bidez, Refinería de Aluminio SLri Legutioko (Araba) udalerrian aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko emandako ingurumen-baimen integratua aldatu eta eraginkor egin zen.

5.– 2015eko otsailaren 17an, sustatzaileak jakinarazi zuen funtsezkoa ez den aldaketa bat egin zela, hau da, siderurgia-sektorearentzat, bigarren mailako aluminioa formatu baliodunetan moldekatzeko lingote-ontzi berri bat instalatzea. 2015eko otsailaren 24an, ingurumen-organoak jakinarazi zuen aldaketa ez zela funtsezkoa.

6.– 2015eko ekainaren 1ean, sustatzaileak jakinarazi zuen funtsezkoa ez den aldaketa pare bat egin zela, hau da, garbiketa-makina berri bat instalatzea, zeinak hondakin berri gisa LER 14 06 03 disolbatzaile ez-halogenatua sortzen baitu, eta lan-txandak zabaltzea, zeinak lehengai eta osagarri gehiago kontsumitzea baitakar, baita % 20 hondakin sortzea ere. 2015eko ekainaren 8an, ingurumen-organoak jakinarazi zuen aldaketak ez zirela funtsezkoak.

7.– 2015eko ekainaren 24an, sustatzaileak jakinarazi zuen funtsezkoa ez den aldaketa bat egin zela, hau da, berreskuratutako kobrezko granailak urtu eta aztertzekeo litroko edukiera zuten 2 labe instalatzea, barruan dituzten bigarren mailako metaletan zer eduki duten zehazteko, saiakuntza-probetak moldekatu ondoren txinparta bidez isurtzeko teknika espektrometrikoak erabiliz. Labe horiek foku bat dute. 2015eko ekainaren 29an, ingurumen-organoak jakinarazi zuen aldaketa ez zela funtsezkoa.

8.– 2016ko otsailaren 1ean, sustatzaileak jakinarazi zuen funtsezkoa ez den aldaketa bat egin zela E.3.3.2. puntuan, sortutako egur-hondakinari buruzkoa, LER 150103, baimendutako kudeatzaile baten bidez kudeatzeko berezia. 2016ko otsailaren 4an, ingurumen-organoak jakinarazi zuen aldaketa ez zela funtsezkoa.

9.– 2016ko ekainaren 15ean, sustatzaileak jakinarazi zuen funtsezkoa ez den aldaketa bat egin zela, hau da, bosgarren lan-txanda ezartzea, ekoizpen-demandak gora egitearen ondorioz. 2016ko ekainaren 29an, ingurumen-organoak jakinarazi zuen aldaketa ez zela funtsezkoa.

10.– 2016ko uztailaren 27an, sustatzaileak jakinarazi zuen funtsezkoa ez den aldaketa bat egin zela, hau da, bi hondakin arriskutsu (glikoldun urak eta berun-azidozko bateriak) sartzea, hiru urtean behin instalazioen eta makineriaren mantentze-lanen sortutakoak eta aurreikusi gabe zeudenak (EHZ 16 01 14\* eta EHZ 16 06 01\*). 2016ko abuztuaren 31n, ingurumen-organoak jakinarazi zuen aldaketa ez zela funtsezkoa.

11.– 2016ko azaroaren 17an, sustatzaileak jakinarazi zuen funtsezkoak ez diren aldaketak egin zirela, hau da, LER 150202 hondakin arriskutsu berria sartzea (zapiak eta xurgatzaileak) eta indarreko IBIn E.2.4 apartatuaren b) puntua kentzea. 2016ko azaroaren 28an, ingurumen-organoak jakinarazi zuen aldaketak ez zirela funtsezkoak.

12.– 2018ko uztailaren 16an, sustatzaileak jakinarazi zuen funtsezkoa ez den aldaketa pare bat egin zela, hau da, aluminioa galdatzeko labe birakari bat eta zepak hozteko ekipo bat instalatzea eta fusore-dorreetako bat kentzea. 2018ko urriaren 1ean, ingurumen-organoak jakinarazi zuen aldaketa ez zela funtsezkoa.

13.– 2018ko urriaren 18an, sustatzaileak jakinarazi zuen funtsezkoa ez den aldaketa pare bat egin zela, hau da, OTUA Taldeko instalazioetarako sarbidea eta talde horretako enpresen instalazioetara sartzen diren enpresen eta pertsonen kontrola hobetzea. 2018ko urriaren 19an, ingurumen-organoak jakinarazi zuen aldaketa ez zela funtsezkoa.

14.– 2018ko azaroaren 21ean, sustatzaileak jakinarazi zuen funtsezkoa ez den aldaketa bat egin zela, hau da, gas puruak elikatzeke ekipo kriogeniko berri bat ezartzea labe birakari fusore berrirako; halaber, konpresoreetako aire-sarrera aldatu behar da, kanalizazioa teilatutik eginez. 2018ko azaroaren 22an, ingurumen-organoak jakinarazi zuen aldaketa ez zela funtsezkoa.

15.– 2018ko abenduaren 11n, sustatzaileak jakinarazi zuen funtsezkoa ez den aldaketa bat zuzendu egin zela, hau da, 2018ko urriaren 4an ingurumen-organoak jakinarazitako aldaketa; jardueraren epigrafe bat kendu zen, hots, «2.5.b. Metal ez-ferrosoak, aleazioa barne, eta berreskuratzeko produktuak (fintzea, galdategian moldekatzea) galdatzeko instalazioak, berunerako eta kadmiorako eguneko 4 tonatik gora, edo gainerako metal guztietarako 20 tona galdatzeko gaitasuna dutenak», eta jardueraren epigrafe bakar bat ezarri, hots, «2.5.a. Mineralekin, kontzentratuekin edo bigarren mailako lehengaiekin, prozedura metalurgiko, kimiko edo elektrolitikoekin, burdinarik gabeko metal gordinak ekoizteko erabiltzen diren instalazioak».

16.– 2019ko martxoaren 13an eta 17an, sustatzaileak jakinarazi zuen funtsezkoak ez diren aldaketak egin zirela, hau da, instalatu beharreko zepa-hozkailuan konbekzioz sortutako lurrina ateratzeko foku ez-sistematiko bat ezartzea eta instalazioan sortutako hondakin berriak sartzea, IBIn sartuta ez daudenak edo zuzenak ez direnak. 2019ko apirilaren 3an, ingurumen-organoak jakinarazi zuen aldaketa ez zela funtsezkoa.

17.– 2019ko maiatzaren 13an, sustatzaileak jakinarazi zuen funtsezkoa ez den aldaketa bat egin zela, hau da, hondakinen zein salgai arriskutsuen biltegiaren kokapena lekuz aldatzea, instalazioaren ekialdeko ertzeko sarrerako atearen ondoko eremu berri batean kokatzeko. 2019ko maiatzaren 29an, ingurumen-organoak jakinarazi zuen aldaketa ez zela funtsezkoa.

18.– 2019ko ekainaren 4an, sustatzaileak jakinarazi zuen funtsezkoak ez diren aldaketak egin zirela, hau da, zolatak hainbat zati konpontzea eta nabe nagusiaren estalkia konpontzea. 2019ko ekainaren 24an, ingurumen-organoak jakinarazi zuen aldaketak ez zirela funtsezkoak.

19.– 2019ko urriaren 2an, sustatzaileak jakinarazi zuen funtsezkoa ez den aldaketa egin zela, hau da, euskarri bat ezartzea barruko itxitura bat ezartzeko siloen gunearen eta lingoteak biltegi-ratzeko gunearen artean, REFIALen nabean. 2019ko urriaren 11n, ingurumen-organoak jakinarazi zuen aldaketa ez zela funtsezkoa.

20.– Ingurumeneko sailburuordearen 2019ko azaroaren 6ko Ebazpenaren bidez zuzendu ziren Refinería de Aluminio SLri (REFIAL) Legutioko udalerrian (Araba) hondakin arriskugabeak kudeatzeko instalaziorako emandako ingurumen-baimen bateratua berrikusi eta aldatzen duen 2019ko apirilaren 3ko Ebazpenean hautemandako akatsak.

21.– 2019ko abenduaren 2an, Refinería de Aluminio SLk eskaera bat egin zion Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari hondakin arriskutsu diren gatz-zepa gehiago sortzeko eta aluminio-lingote gehiago ekoizteko aldaketa-proiektuaren ingurumen-baimen integratuaren funtsa aldatzeko eta ingurumen-inpaktua ebaluatzeko, bat etorri abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginean xedatutakoarekin. Eskabidearekin batera, agiri tekniko hauek aurkeztu zituen:

- Proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterketa, ingurumen-baimen bateratuaren funtsezko aldaketa eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

- Laburpen ez-teknikoa.

22.– Ingurumeneko sailburuordearen 2020ko martxoaren 4ko Ebazpenaren bidez, instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jo zen Refinería de Aluminio SLk Legution (Araba) aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko jardueran jakinarazitako aldaketa-proiektua, eta, beraz, ez da haren ingurumen-baimen integratua aldatu behar. Hozte-dorreko urak hondakin arriskugabea (EHZ 100328) jarduerak puntualki sortutako hondakin ez-arriskutsu gisa sartzean datza jakinarazpena.

23.– Ingurumeneko sailburuordearen 2020ko martxoaren 4ko Ebazpenaren bidez, instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jo zen Refinería de Aluminio SLk Legution aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko jardueran jakinarazitako aldaketa-proiektua.

Araba Garapen Agentziak eskatuta San Antolin 12 kaleko kanalizazioak bereizteko eta kutxatila eraikitzeo obra egitean datza aldaketa.

24.– Ingurumeneko sailburuordearen 2020ko martxoaren 4ko Ebazpenaren bidez, instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jo zen Refinería de Aluminio SLk Legution aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko jardueran jakinarazitako aldaketa-proiektua. Aldaketa zolata konponetzean datza.

25.– 2019ko abenduaren 18an, ingurumen-organoak, baimena berrikuste aldera, honako hauek helarazteko eskatu zion Refinería de Aluminio SLri (REFIAL): instalazioaren funtzionamenduaren eta ondorioetan deskribatutako teknika erabilgarri onenen arteko alderaketa bat eta instalazioko isurketei buruzko bestelako agiriak.

26.– 2020ko urtarrilaren 17an, ingurumen-baimen bateratua berrikusteko eskatu zitzaion agiriak aurkeztu zituen Refinería de Aluminio SLk (REFIAL).

27.– Aurkeztutako agiriak nahikoak zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordearen 2020ko martxoaren 11ko Ebazpenaren bidez, Refinería de Aluminio SLren (REFIAL) ingurumen-baimen bateratuaren berrikuspenean jendaurrean jartzea erabaki zen, 30 egun balioduneko

epean, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2020ko apirilaren 27an, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2020ko ekainaren 19an.

28.– Ingurumen-baimen integratua jendaurrean jartzeko izapideak amaituta, egiaztatu zen ez zela alegaziorik aurkeztu.

29.– Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak txostena eskatu zion Legutioko Udalari eta Araba Garapen Agentziari 2020ko apirilaren 27an.

30.– Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa betez, 2020ko maiatzaren 5ean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak txostena eskatu zion Osasun Sailari.

31.– 2020ko maiatzaren 6an eta 2020ko maiatzaren 8an, Araba Garapen Agentziak eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak txostenak egin zituen, eta espedientean jaso da txosten horien emaitza.

32.– Aurkeztutako agiriak nahikoak zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2020ko maiatzaren 12ko iragarkiarene bidez erabaki zen jendaurrean jartzea, 30 egun baliodunez, Refinería de Aluminio SLk Legution sustatutako proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterketa, egoki jotzen ziren alegazioak aurkezteko. Iragarkia 2020ko maiatzaren 18ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzaren iragarki-taula elektronikoan argitaratu zen.

33.– Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, zenbait alegazio-idazki aurkeztu direla egiaztatu da, eta ingurumen-organo honek horiei buruz egindako gogoetak ebazpen honen II. eranskinean jaso dira.

34.– 2020ko ekainaren 18an, ingurumen-organoko zerbitzu teknikoek ikuskapen-bisita egin zuten, teknika erabilgarri onenak ezarri zirela egiaztatuz. AAI00316/MTDs zenbakiko akta egin zen, eta espedientean dago horren emaitza.

35.– Ingurumeneko sailburuordearen 2020ko ekainaren 30eko Ebazpenaren bidez, instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jo zen Refinería de Aluminio SLk (REFIAL) Legution aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko jardueran jakinarazitako aldaketa, hau da, ingurumen-baimen integratuaren baldintzak Batzordearen 2016ko ekainaren 13ko Betearazpen Erabakira egokitzea, eta, beraz, ez da haren ingurumen-baimen integratua aldatu behar. Erabaki horren bidez, teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak ezartzen dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren metal ez-burdinazkoen industrietarako 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera (2016/1032/EB Erabakia).

36.– Ingurumeneko sailburuordearen 2020ko urriaren 15eko Ebazpenaren bidez, instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jo zen Refinería de Aluminio SLk Legution aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko jardueran jakinarazitako aldaketa-proiektua, hau da, makineriaren mantentze-lanen ondorioz sortutako bi hondakin arriskutsu berri sartzea, eta, beraz, ez da haren ingurumen-baimen integratua aldatu behar. Hondakin horiek EHZ 16 01 07\* dira (olio-filtroak) eta EHZ 16 01 21\* (erregai-filtroak).

37.– Ingurumeneko sailburuordearen 2020ko azaroaren 11ko Ebazpenaren bidez, instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jo zen Refinería de Aluminio SLk Legution aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko jardueran jakinarazitako aldaketa-proiektua, hau da, zepak hozteko hobian 3 hustubide-hodi jartzea, akats elektrikoa gertatuz gero hobi hori ez urperatzeko eta

larrialdi-egoera horien ondorioz arazorik ez izateko, eta, beraz, ez da haren ingurumen-baimen integratua aldatu behar.

38.– Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 17. eta 18. artikuluetan eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 37. artikuluan xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien 2020ko azaroaren 17an Legutioko Udalari, Araba Garapen Agentziari, Arabako Osasun Publikoko Zuzendariordetzari eta Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari; emaitzak espedientean daude.

39.– Ingurumeneko sailburuordearen 2021eko otsailaren 26ko Ebazpenaren bidez, instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jo zen Refinería de Aluminio SLk Legution aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko jardueran jakinarazitako aldaketa-proiektua, zeina REFIALren landako hainbat gunetan zolata konpontzean datzan.

40.– Ingurumeneko sailburuordearen 2021eko apirilaren 13ko Ebazpenaren bidez, instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jo zen Refinería de Aluminio SLk Legution aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko jardueran jakinarazitako aldaketa-proiektua, hau da, makineriaren mantentze-lanen ondorioz sortutako hondakin arriskutsu berri bat sartzea, eta, beraz, ez da haren ingurumen-baimen integratua aldatu behar.

41.– 2022ko apirilaren 9an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legea.

42.– Ingurumeneko sailburuordearen 2022ko otsailaren 16ko Ebazpenaren bidez, instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jo zen Refinería de Aluminio SLk Legution aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko jardueran jakinarazitako aldaketa-proiektua, hau da, instalazioaren zolata konpontzea mantentze-beharrak direla eta, eta, beraz, ez da haren ingurumen-baimen integratua aldatu behar.

43.– Ingurumeneko sailburuordearen 2022ko irailaren 12ko Ebazpenaren bidez, instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jo zen Refinería de Aluminio SLk Legution aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko jardueran jakinarazitako aldaketa-proiektua, hau da, kanalizazio bat instalatzea proba-labearen gainean emisioak 5. fokura konfinatu eta birbideratzeko, eta, beraz, ez da haren ingurumen-baimen integratua aldatu behar.

44.– Ingurumeneko sailburuordearen 2022ko azaroaren 14ko Ebazpenaren bidez, instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jo zen Refinería de Aluminio SLk Legution aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko jardueran jakinarazitako aldaketa-proiektua, hau da, instalazioaren zolata konpontzea mantentze-beharrak direla eta, eta, beraz, ez da haren ingurumen-baimen integratua aldatu behar.

45.– 2023ko otsailaren 17an eta martxoaren 28an, Araba Garapen Agentziak Refinería de Aluminio SL enpresaren isurketari buruzko txostena helarazi zuen.

46.– Ingurumeneko sailburuordearen 2023ko apirilaren 24ko Ebazpenaren bidez, instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jo zen Refinería de Aluminio SLk Legution aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko jardueran jakinarazitako aldaketa-proiektua, hau da, hainbat zonatan indusketa eta dastaketa egitea, hodiak aurkitzeko eta ondoren konpontzeko, eta, beraz, ez da haren ingurumen-baimen integratua aldatu behar.

47.– Ingurumeneko sailburuordearen 2024ko urtarrilaren 18ko Ebazpenaren bidez, instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jo zen Refinería de Aluminio SLk Legution aluminioa fintzeko eta

hondakinei balioa emateko jardueran jakinarazitako aldaketa-proiektua, zeina datzan zolatako hainbat zati konpontzean mantentze-beharrak direla eta, eta, beraz, ez da haren ingurumen-baimen integratua aldatu behar.

48.– Ingurumeneko sailburuordearen 2024ko otsailaren 6ko Ebazpenaren bidez, instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jo zen Refinería de Aluminio SLk Legution aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko jardueran jakinarazitako aldaketa-proiektua, hau da, nabearen mendealdeko korridorean xukatze-ponpa bat jartzea, ur-maila ahalik eta baxuena izan dadin, eremu horretako hargune elektrikoak urak har ez ditzan eta, ondorioz, matxurarik eragin ez dezan, eta, beraz, ez da haren ingurumen-baimen integratua aldatu behar.

49.– Ingurumeneko sailburuordearen 2024ko otsailaren 27ko Ebazpenaren bidez, instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jo zen Refinería de Aluminio SLk Legution aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko jardueran jakinarazitako aldaketa-proiektua, hau da, bi zutabe instalatzea baskularen bi aldeetan terminal informatizatu bat dutela eta, hozte-dorreetarako hodian bidez, ur erabilia berriz zirkulazioan jartzea zepak hozteko prozesuan, eta, beraz, ez da haren ingurumen-baimen integratua aldatu behar.

50.– 2024ko urriaren 2an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan xedatutakoa betez, Refinería de Aluminio SLren (REFIAL) esku utzi zen espedientea.

51.– 2020ko ekainaren 18an, ingurumen-organoko zerbitzu teknikoek ikuskapen-bisita egin zuten, teknika erabilgarri onenak ezarri zirela egiaztatzeko. AAI00316/MTDs zenbakiko akta egin zen, eta espedientean dago horren emaitza.

52.– 2024ko irailaren 8an, Refinería de Aluminio SLk (REFIAL) alegazioak aurkeztu zituen, idazki baten bidez. Ebazpen honen eranskinean daude jasota, labur, organo honek haiei buruz egindako oharrekin batera.

53.– Era berean, 2024ko azaroaren 8ko entzunaldi-izapide horretan alegazioak erregistratu direnez, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 20.2 artikulua aplikatuz, espediente osoa Araba Garapen Agentzia erakundearen esku jarri da, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak egindako ebazpen-proposamenaren zirriborroa gehituta.

54.– 2024ko apirilaren 4an, Araba Garapen Agentziak alegazioei erantzuna eman zien, eta ebazpen honen III. eranskinean jaso dira ingurumen-organo horrek alegazio horiei buruz egitekoak dituen oharpenak.

55.– Ingurumeneko sailburuordearen 2025eko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren bidez, instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jo zen Refinería de Aluminio SLk, AAI00316\_MNS\_2024\_005 espedientearen bidez, Legution aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko jardueran jakinarazitako aldaketa-proiektua, hau da, sortutako bi hondakin berri sartzea, eta, beraz, ez da haren ingurumen-baimen integratua aldatu behar. EHZ 16 05 04\* (bonbona presurizatuak) eta EHZ 20 03 04 (putzu septikoen lohiak). Era berean, tonerrak EHZ-RAEE 16 02 14-62 kodearekin kudeatzera igarotzen dira.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Ekainaren 11ko 5/2013 Legeak –Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea eta Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea aldatzen dituena– uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikulua edukia ezabatuz (ingurumen-baimen bateratua berritzeari buruzko artikulua), 2008ko apirilaren 30eko Ebazpenaren bosgarren apartatuaren edukia ezabatu behar da.

2.– 2016ko ekainaren 30eko Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Batzordearen 2016ko ekainaren 13ko Betearazpen Erabakia, zeinaren bidez ezartzen baitira teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, metal ez-burdinazkoen industrietarako Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera (2016/1032/EB Erabakia).

3.– 2016ko abenduaren 31n, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

4.– Aipatutako testu bateginaren 26. artikuluan daude ezarrita baimena berrikusteko baldintzak. Horri jarraituz, lau urteko epean, instalazioaren jarduera nagusiarri dagozkion TEOen inguruko ondorioak argitaratzen direnetik aurrera, organo eskudunak ziurtatuko du instalazioaren baimenaren baldintza guztiak berrikusi direla eta, beharrezkoa izanez gero, egokitu direla, eta instalazioak aipatutako TEO erreferentzia-agirien ondorio aplikagarriak betetzen dituela.

5.– 2019ko urriaren 15eko Estatuko Aldizkari Ofizialean urriaren 10eko TEC/1023/2019 Agindua argitaratu zen, zeinean ezartzen baita noiztik aurrera eskatu ahal izango zaien nahi-taezko finantza-bermea Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueri –ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 3. lehen-tasun-mailakotzat sailkatuak–.

6.– Urtarrilaren 21eko 4/2020 Dekretuak indarrrik gabe utzi zuen irailaren 25eko 183/2012 Dekretua, eta ingurumen-baimen bateratuaren bigarren apartatua eta hirugarren apartatuko F.3.1.3 eta G.1 azpiapartatuak aldatu zituen.

7.– Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren – Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartua– 10. artikuluan eta urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren –Industriako Isurpenen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena– 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, Refinería de Aluminio SLren (REFIAL) Legutioko instalazioetan planteatutako aldaketa, Refinería de Aluminio SLren (REFIAL) aldaketa-proiektua, funtsezko aldaketa da.

8.– Era berean, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 43.4 artikuluan arabera, ingurumen-baimen integratuaren mendeko jarduera ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren mende badago, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren berezko alderdiak jasoko ditu. Aipatutako abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 78. artikuluan adierazten denez, ingurumen-inpaktuaren adierazpenak prozeduraren mugarri nagusien laburpena jasoko du, eta zehaztuko du, ingurumen-efektuei begira, proiektua egitea bidezkoa den ala ez, eta, hala badagokio, zer baldintzatan gara daitekeen. Besteak beste, hartu beharko diren babes-, zuzen-keta- eta konpentsazio-neurriak eta jarraipena egiteko neurriak jasoko ditu.

9.– Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 76.1 artikuluan xedatutakoa betez, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egingo zaio abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.D eranskinean jasota dagoen ingurumen-ebaluazioaren eremuan dagoen baimendutako proiektu baten aldaketari, bere 2.5.a. epigrafean, «Mineralekin, kontzentratuekin edo bigarren mailako lehengaeiekin, prozedura metalurgiko, kimiko edo elektrolitikoaren bidez, burdinarik gabeko metal gordinak ekoizteko erabiltzen diren instalazioak».

10.– Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen II.D.3 eranskinean xedatutakoa betez, dagoeneko baimendua, onartua, gauzatua edo gauzatze-prozesuan dagoen proiektu baten edozein aldaketari ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egin behar zaio, baldin

eta aldaketa hori bakarrik edo proiektu berean egindako beste aldaketekin metatuta II.D eranskin honetako taldeetako batean jasotako atalaseetara iristen bada.

11.– Era berean, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 23.a) artikuluan xedatutakoa betez, ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari dagokionean, eta jarduera ingurumen-baimen integratuaren araubidearen eraginpean dagoenean, bateratu egingo dira ingurumen-baimen integratuaren prozedura eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozedura. Era berean, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren edukia ingurumen-baimen integratuaren parte izango da, eta bi erabakiak administrazio-egintza berean emango dira.

12.– Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak indarrrik gabe utzi zuen Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea. Beraz, aldatu egin behar dira ingurumen-baimen bateratuaren bigarren apartatua eta hirugarren apartatuko E azpiapartatua.

13.– Ingurumen-baimen integratua eman ondoren, ingurumenari buruzko araudi berria promulgatu da; beraz, egokia da Ingurumeneko sailburuordearen 2011ko urriaren 20ko Ebazpenaren baldintzak indarrean dagoen araudi berrira egokitzea, ofizioz, ebazpen horren seigarren apartatua ezarritakoari eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

14.–Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 72. artikuluan, izapideen kontzentrazioari buruzkoan, xedatutakoa aplikatuko da: «Administrazioa sinplifikatzeko printzipioarekin bat, egintza bakar batean erabakiko dira izaeragatik batera bultzatu daitezkeen eta nahitaez bata bestearen ondoren bete beharrekoak ez diren izapide guztiak».

15.– Ingurumen Sailburuordetzak du ebazpen hau emateko eskumena, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Aipatutako legeria eta aplikagarri diren gainerako arau orokorrak eta berariazkoak aintzat hartuta, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena egitea, hondakin arriskutsu diren gatz-zepa gehiago sortzeko eta aluminio-lingote gehiago ekoizteko Refinería de Aluminio SLren instalazioetan, Legutioko udalerrian, aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko jarduerarako, ebazpen honen bigarren apartatua ezarritako baldintzetan.

– Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen IID. eranskinen 2.5.a) epigrafean jasota dago: «Mineralekin, kontzentratuekin edo bigarren mailako lehengaiekin, prozedura metalurgiko, kimiko edo elektrolitikoaren bidez, burdinarik gabeko metal gordinak ekoizteko erabiltzen diren instalazioak».

Bigarrena.– Refinería de Aluminio SLri emandako ingurumen-baimen integratua berrikustea, baimenaren baldintzak Batzordearen 2016ko ekainaren 13ko Betearazpen Erabakian jasotako moduan egokitu, eta baimen horretan bildutako neurri teknikoak eta baldintzak 2020ko ekainaren 30eko Ebazpenaren bidez ingurumen-baimen integratua txertatzeko, baita Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko 7/2022 Legearen baldintzetara egokitzeko ere.

2025eko azaroaren 11, asteartea

Hirugarrena.– Refinería de Aluminio SLri emandako ingurumen-baimen integratua aldatzea, aluminioa fintzeko eta hondakinen balorizazio-jarduerarako, 2011ko urriaren 20ko Ebazpenaren bidez emandakoa, ebazpen honen I. eranskinean zehaztutako baldintzetan, ingurumen-baimen integratuaren atal hauek, jarraian aipatzen direnak, eta bosgarren apartatua kentzea:

- Bigarrena.
- Hirugarrena.
- Seigarrena.
- Zortzigarrena.

Laugarrena.– Bat etorritz abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 5.d) artikuluan xedatutakoarekin, aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko jarduerari dagokionez –zeina ebazpen honen xede baita–, gerta litekeen titulartasun-aldaketa oro jakinarazi beharko dio Refinería de Aluminio SLk Ingurumeneko Sailburuordetzari, azken horrek onar dezan.

Bosgarrena.– Ingurumen-baimen integratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 31. artikuluari jarraituz, eta aipatutako legearen 32. artikuluan jasotako zehapenak ezartzea ekar dezake.

Seigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Refinería de Aluminio SLri, Legutioko Udalari, Araba Garapen Agentziari, Urrunagako Administrazio Kontseiluari eta Goiango Administrazio Kontseiluari, ingurumen-baimen integratua emateko prozeduran parte hartu duten organismoei, eta gainerako interesdunei.

Zazpigarrena.– Refinería de Aluminio SLri bidaltzea Araba Garapen Agentziak (AGA) 2025eko apirilaren 1ean emandako erantzuna, Refinería de Aluminio SL enpresak (REFIAL) aurkeztutako alegazioei buruzkoa, AAI\_00316\_MS\_2020 espedientearen esparruan, bai eta AGAk 2023ko ekainaren 1ean eta 2024ko irailaren 27an Sailburuordetza honetara bidalitako idazkiak ere, erantzun horretan aipatutakoak.

Hori guztia, AGAk azaldutakoa kontuan hartzeko, eta aipatutako agirietan eskatutakoari erantzuteko.

Zortzigarrena.– Ingurumen-baimen integratuaren berrikuspen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Bederatzigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 23a.

Ingurumeneko sailburuordea,  
JOSU BILBAO BEGOÑA.

## I. ERANSKINA

«Bigarrena.– Refinería de Aluminio SLri (REFIAL) (egoitza soziala: San Antolin kalea 12, Goian industrialdea, Legutio; IFZ: B01292671) ingurumen-baimen integratua ematea, Legutioko udalerrian aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko instalazio baterako, ebazpen honen hirugarren apartatuan ezarritako baldintzekin.

Jarduera sartuta dago Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 1. eranskineko kategoria honetan: 2. 5.a. Mineralekin, kontzentratuekin edo bigarren mailako lehengaiekin, prozedura metalurgiko, kimiko edo elektrolitiko bidez, burdinarik gabeko metal gordinak ekoizteko erabiltzen diren instalazioak.

Refinería de Aluminio SLren (REFIAL) instalazioa Goian industrialdean dago (San Antolin kalea 12), Legutioko udalerrian. Guneak 10.376 m<sup>2</sup>-ko azalera du guztira, eta gutxi gorabehera 6.850 m<sup>2</sup>-ko azalera estalia. Bi eremu bereizi ditu: 5.000 m<sup>2</sup>-ko nabe nagusia, ekoizpen-planta eta bulegoak barnean direla, eta 1.850 m<sup>2</sup>-ko estalki osagarria, materialak biltegitzeko. Kokapenaren azaleraren % 100 zolatua dago.

Lantegian aluminio-lingoteak eta aluminio likidoa ekoizten dira, aluminioa fintzeko prozesu baten bidez. Aluminioa ondorengo lehengaietatik (hondakinak barne) ateratako aluminiozko materialaren bigarren galdaketatik lortzen da:

- Sektore berreskuratzaileak lortutako aluminioa (aluminio zatikatua, flotatua, indukzio-korronteen bidez edo zatikatze-erreus astun eta arinen tratamenduaren bidez bereizia, aluminiozko kablea...).
- Ekoizpen ondoko hondakinak (aluminio-txirbila, erabiltzen ez diren ibilgailuen karterra...).
- Gaikako bilketatik datorren aluminioa (poteak, tapoiak, pertsianak, tresnak...).
- Aluminio-edukia duten hondakin termometalurgikoak, hala nola zepak eta abar.

Instalazio horren ekoizpen-ahalmena 75.000 t/urtekoa da. Ondoren, instalazioko ekoizpen-prozesu nagusiak deskribatuko ditugu:

Lehengaien eta gai osagarrien harrera eta biltegitratzea.

Ekoizpen-prozesuan erabiliko diren lehengaiak eta gai osagarriak kamioietan iristen dira, eta estalkipean biltegitratu behar dira. Horiek guztiak aterpean biltegitratuko dira, hondakin arriskutsuak edo hauts-itxurakoak badira.

Tratamenduaren zain dauden hondakin arriskutsuen gehienez 5.500 tona biltegitratzeko edukiera dago. Horietatik 2.100 tona estalkipean biltegitratzen dira (1.950 tona hondakin arriskugabe eta 150 tona hondakin arriskutsu) eta 3.400 tona San Antolin kalea 10ean dagoen landan.

Lehengaiak iristen direnean, pisatu egin behar dira. Sorta berria besteekin nahastu gabe biltegitratu behar da aurre-kontrol batean bere ezaugarri teknikoak zehaztu arte. Kontrol horren bidez jakingo da konposizio kimikoa aleazio-elementuetan, eta lehengai horiek duten metal-errendimendua.

Horretarako, Refinería de Aluminio SLk laborategiko arragoa motako bi labe izango ditu, eta analisi kimikoak egiteko espektrometro bat, sistema informatikoz kontrolatua. Datu horiek oinarri hartuta, eman beharreko tratamendua eta galdaketan ager litezkeen bestelako arazoak aurreikusiko dira. Laborategiko labeen emisioak 04 emisio-fokura birbideratu dira.

Labeen karga.

Sistema informatikoaren bidez, labe-karga bat prestatzeko egin behar den material-nahasketa kalkulatu da, kontuan hartuta egin nahi den aleazioa, ekoizpen-programaren arabera. Prestaketa horretarako materialak pisatu behar dira, eta aparte utzi.

Galdaketa.

Galdaketa bi labe birakaritan egiten da, zeinetan, gas naturala erabilita, sartutako materiala galdatzen baita. Labe birakarietan sortutako emisioak bi mahuka-iragazkitan tratatzen dira, 02 eta 05 fokuei dagozkienak. Sortzen den iragazki-hautsa zakuratu egiten da, kanpo-kudeaketarako. 05 fokura ere bideratzen dira proba-labeeko emisioak.

Labe birakarietako zepa kentzea.

Labe birakarietako zepa maiz kendu behar da. Zepak galdaketa egin aurretik atera behar dira. Zepa hori, aluminio eta urgari arrastoak dituena, gatz-zepa bezala ezagutzen da. Zepak zepa-hozkailu batera igarotzen dira, zeinak zikloko 9 tonako edukiera baitu, eta, bertan, danbor hoztailearen kanpoaldea hozten da, uraren bidez. Zepek ez dute ura ukitzen, danborraren barrualdearekin kontaktuan egoteagatik hozten dira, eta hozte azeleratu horrek zepan atxikitako metalaren oxidazioa murriztea ahalbidetzen du. Hozkailuaren ahoa 05 fokura birbideratuta dago, hauts-emisioak saihesteko, eta lurrun-deskarga 06 fokura birbideratzen da. Gatz-zepa hotza, azkenik, 50 m<sup>3</sup>-ko edukiera unitarioko bi biltegiatze-silotara birbideratzen da, eta kono dardartia du deskargan.

Aleazioa egitea.

Galdaketa-labeetakoren batetik datorren aluminio likidoa galda-isurbidetik erreten-sistemara eramaten da, eta erretenetatik mantentze-labeetara, bertan tenperatura eta metalen konposizioa doitzeko.

Aluminioa erreberberozko bi labe baskulagarrietan errekifikatzen da (mantentze-labeak), BREF agirian MTDtzat jotzen dena; labe horietan galdatutako materiala homogeneizatzen da, eta materialaren konposizioa doitzen da, aleazio-elementuak erabilita. Labe biak paraleloan egiten dute lan, eta baten materiala galdatzen ari den bitartean, bestean aleazioa doitzen da. Aleatu behar den materialaren laginak hartzen dira, eta moldatutako probetak aztertu ondoren, aleatutako elementuak gehitzen dira. Ekoizpen-fase honetan ondoz ondoko analisi kimikoak egiten dira (analisi – adizioa – analisi) aleazioak dagokion araua betetzen duen arte, produkzio-planaren arabera. Azkenik, metalari zepa kentzen zaio, tenperatura doitzen da, eta metala galdatzen da, eta horrela labea prest dago hurrengo aleazio-ziklorako.

Labe horietako zepak, zepa metaliko gisa ezagutuak, material egokiekin batera, labe birakarian autogestionatzen dira, ahalik eta aluminio gehien berreskuratu ahal izateko.

Labeak berotzeko, gas naturala erretzen da. Bai tenperaturaren kontrola, bai labeen eta instalazioaren beraren funtzionamendurako esanguratsu diren beste parametro batzuen kontrola, automatikoki egiten da, Scada izeneko ordenagailuen bidezko kontrol-sistemaren bidez.

Labeek haizebideak dituzte bainua irabiatzeko, gas inerte bat (kasu honetan nitrogenoa) bertara haizatuta. Bainua irabiatzeak materiala desgasifikatzea, eta bainuaren konposizio kimikoa eta tenperatura homogeneizatzea ahalbidetzen du. Xurgatutako gasak 05 fokura bideratzen dira.

Galdaketa.

Erreberberozko labeak eta likido- eta lingote-instalazioak erreten batzuen bidez daude lotuta. Lantegiak metal likidoa galdatzeko bi instalazio ditu. Horietako batek aluminio likidoa errepedez garraiatzeko erabiltzen diren isurketa-zaliak betetzen ditu, eta besteak, pilak egiteko, horiek pisatzeko eta zumitzak egiteko makina automatiko batean, lingoteak prestatzen ditu.

Aluminio likidoaren instalazioa.

Bezeroei metal likidoa berariazko ontzietan (marmitak edo zaliak izenekoak) zuzenean emateko instalazio bat dago. Aluminio likidoa hartzen duten ontzi horiek, bete aurretik, gas naturala erabiltzen duten erregailuen instalazio baten bidez berotzen dira. Helburua da bezeroei gutxienezko tenperatura batean ematen zaiela ziurtatzea, eta galera kalkulatu 20 °C-koa izatea.

Lingote-lerroak.

Bi lerro paralelo eta autonomo egongo dira azken produktua edo aluminio-lingotea egiteko. Batetik, hozteko sistema, ur-ihintzadura erabilita, eta, bestetik, pilak egiteko, kontrolatzeko eta zumitzak egiteko sistema automatikoa. Lingoteak pilatu ondoren pallet baten itxura hartzen dute, eta horrela gero errazagoa da manipulatzeko, biltegitratzea eta garraiatzea.

Behin lingoteak enbalatu ondoren, bukatutako produktuen biltegitratze-gunera pasatzen dira lantegi barruan, handik gero kanpora bidaltzeko.

Esferaerdien lerroa.

Aurrekoaren gehigarria, instalazioak aluminiozko esferaerdien ekoizpen-lerro bat du altzairua desoxidatzeko; esferaerdiak sistema hidrauliko batez hozten dira, zeinaren lurruna 03 fokura bideratzen baita.

Biltegitratzea eta kanpora bidaltzea.

Kanpora bidali aurretik, parametro hauek egiaztatu behar dira: pisua, tenperatura eta analisi kimikoa likidoan. Parametro horiek horniketa bakoitzari dagozkion ziurtagiriak betetzeko balioko dute. Lingoteen kasuan, materiala biltegitratu egiten da bezeroari bidali arte.

Bezeroari kamioietan bidatzen zaio materiala, bai aluminio likidoa, bai lingote-palletak.

Refinería de Aluminio SLk honako baliabide energetiko hauek erabiliko ditu bere zentroan:

– Energia elektrikoa: Urteko kontsumo zenbatetsia: 5.937.285 kwh. Energia hori honetan erabili da: aluminio-galdaketa konpaktuko sistema; lingoteak egiteko lerroak; xurgatzeko eta iragazteko sistemak; eta bulegoak, argiztapena eta soldadura.

– Gas naturala: Urteko kontsumo zenbatetsia: 5.332.957 Nm<sup>3</sup>, GHI labeetan, erretenetan eta labe birakarian erabilia; eta lingoteak egiteko lerroetan.

– Oxigenoa: Urteko kontsumo zenbatetsia: 8.580.007 kg, labe birakari baskulagarrian erabilia.

– Gasolioa: Urteko kontsumo zenbatetsia: 230.278 litro; kargatzeko palak barruko garraioa egiteko erabilitakoak.

Ur-kontsumo udalaren horniketa-sare orokorretik hartuko da, eta urtean 75.000 m<sup>3</sup> kontsumituko dira gutxi gorabehera saretik. Ura hauetarako erabiliko da: erabilera sanitarioetarako eta garbiketarako, ihintzadura bidez lingoteak hozteko, zepak hozteko, eta multzo hidraulikoak eta hozte-dorreak hozteko.

Zepa-hozkailuan erabilitako ura hoditeria bidez hozte-dorreetara birbideratzen da, eta purgetako ura bakarrik isurtzen da.

Instalaziotik atmosferara egingo diren emisio konfinatuak izen hauek dituzten tximiniei dagozkien emisio-fokuekin lotuta daude:

– Galdaketa-labe birakari baskulagarria 1 (02 fokua).

- Laborategia (4 fokua, ez-sistematikoa).
- Galdaketa-labe birakari baskulagarria 2 eta mantentze-labeak + proba-labea (05 fokua).
- Zepa-hozkailua (6 fokua).

Isurpen-fokuek mauka-iragazkia dute, gasak arazteko sistema gisa.

Era berean, emisio lausoak sor daitezke, batez ere CO<sub>2</sub>-arenak, zaliak eta erretenak aurrez berotzeko sistemaren gas naturaleko erregailuetan, eta partikulen emisio barreiatuak txatarra, aluminio-zepa eta gatz-zepa biltegitratzean eta manipulatzeko eta pala kargatzailea iragatean; halaber, goian aipatutako ur-lurrunaren emisioak sor daitezke.

Hondakin-uren fluxuei dagokienez, honako fluxu hauek sortuko dira: ur sanitarioak, estalkietako euri-urak (ur garbiak) eta ur industrialak (hozte-urmaelak urtero hustea). Fluxu horiek industrialeko kolektorera isuriko dira, bi leku desberdinetan.

Instalazioan sortutako hondakin arriskutsu gehienak, batez ere, labe birakarietako galdaketa-prozesuan, labeetako zepak kentzean, eta zerbitzu orokorretan sortzen dira; hondakin arriskutsu adierazgarriena gatz-zepak dira (30.000 t/urteko, gutxi gorabehera). Halaber, mahuka-iragazkietatik datozen 3.500 tona hauts inguru sortuko dira urtean. Gainerako hondakinak gutxi sortzen dira, eta mantentze-prozesuetatik sortzen dira, funtsean.

Instalazioan sortutako hondakin arriskugabeak balorizazio-prozesutik (birziklatze-errefusak) eta zerbitzu orokorretatik datoz, funtsean.

Metal ez-burdinazkoen industrietarako teknika erabilgarri onenei buruzko (TEO) ondorioak zehazten dituen Europako Batzordearen 2016ko ekainaren 13ko Betearazpen Erabakian adierazitakoa betetzeko behar diren baliabide teknikoak eta antolaketakoak ditu. Aipatutako ondorioetatik, honako hauek aplikatu behar dira: TEO1, TEO2, TEO3, TEO4, TEO5, TEO6, TEO7, TEO8, TEO9, TEO 10, TEO11, TEO13, TEO14, TEO15, TEO16, TEO18, TEO74, TEO77, TEO78, TEO79, TEO81, TEO82, TEO83, TEO84, TEO85, TEO86.»

«Hirugarrena.– Honako baldintza eta eskakizun hauek ezartzea Legutioko udalerrian aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko Refinería de Aluminio SLk sustatutako jarduera ustiatzeko eta eteteko.

A) Erantzukizun zibileko aseguruia egin beharko du, gutxienez zazpiehun eta berrogeita hamar mila (750.000) eurokoa, baimendu den jarduera gauzatzearen ondorioz hirugarren pertsonari edo haien ondasunei eragindako kalteak eta hondatutako ingurumena konpontzearen eta berreskuratzearen kostuak ordaindu ahal izateko.

Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratu daiteke, aurreko 12 hilabeteetako Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) arabera handituta.

B) Ehun eta laurogeita hamar mila (190.000) euroko fidantza jartzea, bat etorri Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 23.5.b) artikuluan xedatutakoarekin. Fidantza horren zenbatekoa hondakinak tratatzeko eta biltegitratzeko gehienezko edukieraren arabera zehazten da.

Fidantza horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumoko prezioen indizearen (KPI) arabera handituta.

Jarritako fidantza ez da itzuliko, Ingurumen Sailburuordetzak Refinería de Aluminio SLk sustatutako hondakin arriskutsuak kudeatzeko jarduera uztea baimendu arte edo dagokionean jardura uzteko finkatutako baldintzak bete arte; baldintza horiek, betiere, lurzoruaren kalitate-adierazpenean ezartzen diren betekizunak barne hartuko dituzte.

### C) Ingurumen-erantzukizuna.

Refinería de Aluminio SLk bere jarduera profesionalaren ingurumen-arriskuen azterketa eguneratu beharko du, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legea hein batean garatzeko araudia onartzen duen abenduaren 22ko 2090/2008 Errege Dekretuaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera. Artikulu horren hirugarren puntuaren arabera, operadoreak ingurumen-arriskuen analisia eguneratuko du egokitzat jotzen duen guztietan, eta jardueran, instalazioan edo baimenean funtsezko aldaketak egiten direnean.

Jardueraren operadoreak ingurumen-kalteak prebenitzeko, saihesteko eta konpontzeko neurriak hartu eta betearazi behar ditu, eta horien kostuak ordaindu behar ditu, zenbatekoa dena dela, baita dolorik, errurik edo zabarkeriarik egon gabe ere, Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legearen 19.1 artikuluan adierazten den bezala.

Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren ganean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Refinería de Aluminio SLk aldaketa horien berri emango du.

E) Neurri babesle eta zuzentzaileak sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita dagoen bezala gauzatuko dira, indarrean dagoen araudia eta ondorengo apartatuetan ezarritakoa betez.

#### E.1.– Hondakinak jasotzeko, ikuskatzeko eta biltegiratzeko baldintzak eta kontrolak.

Refinería de Aluminio SLk apartatu honetan zerrendatutako hondakinak tratatzeko onartu ahalko ditu.

Ebazpen honetan adierazi gabeko hondakinak ezin izango dira onartu. Nolanahi ere, kudea daitezkeen hondakinen eremua zabaltzeko, beharrezkoa izango da Ingurumen Sailburuordetzaren onarpena lortzea aldeztu aurretik, ebazpen honen J apartatuan ezartzen den aldaketa-erregimena betez.

Baldin eta instalazioan tratatzea aurreikusten bada, apartatu honetan zehaztutako hondakin onargarrien zerrendan jasotako hondakin-mota berri bakoitzaren hasierako karakterizazioa egingo du Refinería de Aluminio SLk, tratatu daitezkeen egiaztatzeko. Karakterizazio hori hondakinaren izaeraren eta jatorriaren arabera egingo da, eta kontuan hartuko dira ingurumen-arrazoiengatik edo bestelako arrazoiengatik tratamendua mugatzen duten parametroak.

Hondakin jakin bat jasotzeko aukera egiaztatuta, Refinería de Aluminio SL tratamendu-kontratu horren titularrari hondakin hori onartzeko parametro mugatzaileen edo baldintzatzaileen proposamena bidaliko dio.

Hondakin arriskutsu onargarriei dagokienez, Refinería de Aluminio SLk Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko ditu, hark onar ditzan, emandako tratamendu-kontratua eta egindako karakterizazioaren emaitzak. Ingurumen-organoak balioesteko tratamendu-kontratu bat aurkeztu eta hamar egunera, ingurumen-organoak ez badu espresuki ezer adierazi, Refinería de Aluminio SLk onspenarekin eta proposatutako hondakinaren kudeaketa-prozesuarekin jarraitu ahal izango du.

Hondakinak onartu eta jasotzeko aukera egiaztatu asmoz, Refinería de Aluminio SLk hondakinen onarpen-parametroak egiaztatzea ahalbidetuko duten baliabide teknikoak eta giza baliabideak izan beharko ditu une oro. Plantaren hornidurak gutxienez aukera eman beharko du, hondakinaren sugar-puntua, pH-a, hondakinak urarekin duen erreaktibotasuna, hezetasuna eta berotze-ahalmena zehazteko, bai eta hondakinak guztira duen kloroa eta guztira dituen bestelako organo halogenatuak, kromo hexabalentea, zianuroa, amoniakoa eta fenolak eta kaltzinazioagatik galerak zehazteko ere. Onarpena baldintzatzen duten parametroen zehaztapena beti eta partida guztietan egin beharko da, homologatutako metodo baten bitartez, eta laborategiko buru baten ikuskaritzarekin. Laborategiko

buruak goi-mailako titulu espezializatua eduki beharko du, eta, zentroko langilea edo industria-talde horrek Goian industrialdean duen beste zentro bateko langilea izango da.

Hondakin arriskutsuak onartzeko bestelako parametroak zehaztu behar badira, kanpoko laborategi homologatuen bidez egin ahal izango da. Horretarako, kontratu bat sinatu beharko da, laborategiek emango dituzten zerbitzuen garrantzia eta ezaugarriak agiri bidez egiaztatzeko.

Hondakinak beste autonomia-erkidego batetik lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, bat etorri Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikularekin.

#### E.1.1.– Hondakin onargarriak.

Refinería de Aluminio SL (REFIAL) instalazioak Europako Hondakinen Zerrendako hondakinak tratatuko ditu. Zerrenda hori Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren bidez argitaratu zen, zeinaren bidez aldatu egin zen 2000/532/EE Erabakia –hondakinen zerrendari buruzkoa–, bat etorri Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2008/98/EE Zuzentarauarekin, epigrafe honekin:

Hondakin arriskutsuak	
EHZ kodea	Hondakinak
10 03 04*	Lehen mailako ekoizpeneko zepak
10 03 08*	Bigarren mailako ekoizpeneko bigarren mailako zepak
10 03 09*	Bigarren mailako ekoizpeneko pikor beltzak
10 03 15*	Apar sukoiak, edo ura ukitzean gas sukoiaren kantitate arriskutsuak isurtzen dituztenak
10 10 11*	Bestelako partikulak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
15 01 11*	Aluminiozko ontziak

Hondakin arriskugabeak	
EHZ kodea	Hondakinak
06 03 16	Aluminio-edukia duten oxido metalikoak, 06 03 15 kodean zehaztutakoez bestelakoak direnak
10 03 16	Aparrak, 10 03 15 kodean zehaztutakoez bestelakoak direnak
10 03 20	Gas-efluenteetatik datozen partikuletatik, 10 03 19 kodean zehaztutakoez bestelakoak direnak
10 03 22	Bestelako partikulak eta hautsa (ehotze-prozesuko hautsa barne), 10 03 21 kodean zehaztutakoez bestelakoak direnak
10 10 03	Labeko zepak
12 01 03	Aluminiozko piezak mekanizatzearen txirbilak
15 01 04	Aluminiozko ontziak
16 01 18	Ibilgailuetatik datozen hondakin metalikoak, aluminio-edukia dutenak
16 02 16	Baztertutako ekipamendu elektriko eta elektronikoetatik kendutako osagaiak, aluminio-edukia dutenak, 16 02 15 kodean zehaztutakoez bestelakoak direnak
17 04 02	Eraikuntzako eta eraispenerako hondakin metalikoak, aluminio-edukia dutenak
19 10 02	Hondakinak zatitzetik datozen metal ez-burdinazkoen hondakinak, aluminio-edukia dutenak
19 12 03	Hondakinen tratamendu mekanikotik datozen metal ez-burdinazkoen hondakinak, aluminio-edukia dutenak
20 01 40	Udal hondakinen eta berdinetsien zatiki metalikoak, aluminio-edukia dutenak

EHZ 10 03 08 kodea duten hondakinen kasuan (bigarren mailako ekoizpeneko gatz-zepak), hondakin horiek onartu aurretik, horien ekoizleak Refinería de Aluminio SLri jakinarazi behar dio prozesuan erabilitako urgarrien osaera.

Era berean, ekoizpen-prozesuan sortutako hondakin hauen autokudeaketa egingo da:

Refinería de Aluminio SLn (REFIAL) sortutako hondakinak	
EHZ kodea	Hondakinak
10 03 15*	Apar sukoiak, edo ura ukitzean gas sukoiaren kantitate arriskutsuak isurtzen dituztenak
15 02 02 *	Mahuka-iragazki erabiliak

#### E.1.2.– Hondakinen sarrera kontrolatzea.

Instalazioa martxan dagoen bitartean, bertara iristen diren hondakinak kontrolatu behar dira, hondakin horiek ebazpen honen baldintzen arabera plantan onargarriak direla egiaztatu dadin.

Kontrol horretan, Ingurumen Sailburuordetzak onartutako tratamendu-kontratuan ezarritako egiaztapena egin beharko da. Agiri horretan, muga-parametroak eta onartzeko baldintzak ezarriko dira. Egiaztatze hori sarrera-kontrolerako agiri batean erregistratuta geratuko da.

Hondakina jaso aurretik, onarpen-prozeduran adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da, eta, hala badagokio, jasotze hori formalizatuko da. Horretarako, kontrol eta jarraipenerako agirian, edo horren baliokidea den agiri ofizialean, kudeatzaileari dagokion apartatua bete beharko da.

Onartzeko parametro mugatzaileak ez betetzeagatik hondakin-partida bat baztertzeko bada, berehala jakinarazi beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari. Horrekin batera, jatorria, kantitatea, enpresa garraiatzailea, bazterketaren arrazoia, baztertutako hondakinaren helmuga eta bestelako gorabehera buruzko datuak eman beharko dira.

Aurretik adierazitako kontrolen osagarri gisa, ekoizle bakoitzeko 20 tona gainditzen dituen fabrika kudeatutako hondakin arriskutsu mota bakoitzaren karakterizazioa egingo da urtero (jatorri desberdin bakoitzeko karakterizazio bat). Karakterizazio hori kanpoko laborategi batek egin beharko du. Informazioa Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da, urtero.

Refinería de Aluminio SLk egiaztatu beharko du indarrean dagoen legeriak exijitzen dituen eskakizunen arabera gauzatzen dela Legutian dauzkan instalazioetara hondakin arriskutsuak eramateko erabiliko den garraioa horrelako salgaien garraiorako, eta, horren inguruan jazoeraren bat antzematen denean, berehala jakinarazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, hark egoki irizitako neurri guztiak har ditzan.

#### E.1.3.– Zamalanak.

Hondakin horien zamalanak egiteko ibilgailuak zolata iragazgaitzean aparkatuko dira, eta beharrezko maldak eta balizko isuriak biltzeko sareak, horiek kutxatila itsurantz edo biltzeko putzurantz zuzentzeko, bidean ibilgailuaren azpitik igaro gabe edo beste ibilgailu edo instalazio batzuetara hurbildu gabe.

Hondakin horien zamalanak gai arriskutsuak manipulatzeko eskatutako segurtasun-baldintzak betez egingo dira.

Plantan, hondakinekin zamalanak egitean edo hondakinak manipulatzeko, kontu handia izan beharko da kontrolik gabeko emisiorik edo emisio lausorik ez egoteko, edo, bestela, emisio horiek ahalik eta txikiak izateko. Alde horretatik, ekipoen estankotasuna ziurtatzea ere garrantzitsua izango da.

#### E.1.4.– Jasotako hondakinak biltegitratzea.

Hondakinak estankotasun-baldintza egokietan biltegitratuko dira, gerta daitezkeen ihesen edo isurien balizko eragina saiheste aldera; halakorik gertatuz gero, haiek bildu eta karakterizatu egingo dira.

Bi urtekoa izango da balorizatu beharreko hondakin arriskugabeak gordetzeko gehieneko epea.

Balorizatu beharreko hondakin arriskutsuak gehienez sei hilez biltegitratuko dira.

Tratatu beharreko hondakinak biltegitratzeko instalazioek lurzoru estankoak izango dituzte, aurreikus daitezkeen karga guztiak jasateko eta hondakinen ihesak edo isuriak atxikitzeko modukoak. Halaber, biltegitratze-eremu bereziak egongo dira hondakin onargarrien mota generiko bakoitzerako.

Prezipitazio atmosferikoak sartzera eta haizeak arrastatzea saihesteko gisan biltegitratu beharko dira onartutako hondakinak instalazioan.

Hauts-itxurako hondakinak eta soltean jasotakoak habeartean barruan gorde beharko dira, multzotan edo gelaxketan, tratamendua egiteko unea iritsi arte. Hauts-itxurako hondakinen biltegitik eta prozesua elikatu bitarteko garraioa estalkipean egingo da, haizeak arrastatzea saihesteko.

Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isuriak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko ontzi edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isuriak kanpora irten ez daitezen. Biltzeko sistemak independenteak izango dira, baldin eta, haien tipologia dela eta, isurien ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihurtu badaitezke edo kudeaketa zaildu badezakete.

Hondakinak desagertu, galdu edo isurtzen baldin badira, jazoera hori berehala jakinarazi beharko zaie bai Ingurumen Sailburuordetzari bai Legutioko Udalari.

#### E.1.5.– Kudeatutako hondakinen datuen erregistroa.

Urtean 10 tona hondakin arriskugabe baino gehiago sortuz gero, Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikulua araber, Refinería de Aluminio SLk formatu elektronikoko artxibo kronologiko bat izan beharko du, non jasoko baitira, ordena kronologikoan, sortutako hondakinen kopurua, mota eta jatorria, bai eta berrerabiltzeko, birziklatzeko, beste balorizazio-eragiketa batzuk egiteko eta deuseztatzeko produktu, material edo substantzien eta horien ondoriozko hondakinen kopurua ere; eta, hala badagokio, eragiketa horien ondorioz sortutako hondakinaren helmuga, bilketaren maiztasuna, garraioa eta aurreikusitako tratamendu-metodoa ere inskribatuko dira, bai eta produktu, material eta substantzien helmuga ere. Artxibo kronologikoaren inskripzioak, aplikatzekoa denean, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinen araber baimendutako tratamendu-eragiketa bakoitzeko egingo dira. Baztertutako hondakinen kasuan, kantitatea, baztertu den hondakinaren enpresa ekoizlea, baztertzearen arrazoia, baztertu den hondakinaren azken helmuga eta beste gorabehera batzuk jakinaraziko dira. Aipatutako fitxategi kronologikoan, hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanen agiri bidezko egiaztapenean bildutako informazioa sartu behar da. Artxibo kronologikoa hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanetarako eskatutako egiaztagirietako informazioa oinarri hartuta egingo da.

Artxibo kronologiko hori bost urtez gorde beharko du gutxienez, eta urtero bidali beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

Apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan ezarritakoaren araber, Refinería de Aluminio SLk, datuak jaso ondorengo urteko martxoaren 1a baino lehen eta dagokion ingurumena zaintzeko programaren barruan, artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria bat aurkeztu beharko du, zeinak lege honen XV. eranskinean agertzen den gutxieneko edukia barne hartu beharko baitu.

Ebazpen honen hirugarren apartatuko E.1.2 azpiapartatuan aipatutako kontrolen emaitzak arautzen den artxibategian jasoko dira, bai eta Refinería de Aluminio SLk gauzatu ditzakeen egiaztapenenak ere.

Aurreko apartatuetan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

E.1.6.– Estatuz kanpotik inportatutako hondakinak.

Kudeatu beharreko hondakinak Espainia kanpotik datozen kasuetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko apirilaren 11ko 2024/1157 (EB) Erregelamenduan –hondakinen lekualdaketei buruzkoa– ezarritakoa bete beharko da. Erregelamendu horrek 1257/2013 (EB) eta 2020/1056 (EB) erregelamenduak aldatzen ditu, eta 1013/2006 (EE) Erregelamendua indargabetzen du.

Gainera, aurreikusten bada zabortegian deuseztatu beharko direla inportatu beharreko hondakinak zein inportatutako hondakinen helmugako instalazioan aurreikusitako balorizazio- eta deuseztatze-tratamendutik lortutako korrante nabarmenen bat, orduan, kontsulta bat egin beharko zaio organo honi, justifikatuz aurreikusitako mugaz gaindiko lekualdaketak bat datozela EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030 Planean zehaztutako hondakinen inguruko plangintzaren helburuekin.

E.2.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

E.2.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

E.2.1.1.– Baldintza orokorrak.

Refinería de Aluminio SLren (REFIAL) instalazioaren ustiapenean bete beharreko baldintzak dira emisio atmosferikoek ez gainditzea ebazpen honetan ezarritako balioak, eta Ingurumen Sailburuordetzak jarraibide teknikoetan ezarritako eskakizun teknikoak betetzea.

Prozesuan zehar atmosferara isuritako kutsatzaile guztiak bildu eta hodi egokien bidez kanporatu beharko dira, hala dagokionean, emisio horien ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor horretatik salbuetsi ahal izango dira teknikoki edo ekonomikoki atzemanekin diren konfinatu gabeko emisioak, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurri egokiak hartuko dira ustekabeko emisioak gertatzeko aukera txikitzeko, eta haien efluentek giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezzen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabilzan edo geldirik dauden aldiak.

Instalazioaren titularrek bete beharko dituzte atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren 5. artikuluan adierazitako betebeharrak.

Organo horrek foku berri bat baimendu ondoren, hura abiarazten denetik sei hilabete igaro baino lehen, ingurumen-kontrolerako entitate batek egindako hasierako IKE txosten bat igorri beharko da. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahal izango zaio Ingurumen Sailburuordetzari, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

## E.2.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Refinería de Aluminio SLren (REFIAL) instalazioak –aluminioa fintzeko eta hondakinei balioa emateko instalazioa– 03 03 10 01 jarduerari lotutako foku konfinatu hauek ditu (jarduera hori Airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legean jasotako atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoan jasota dago):

Fokua	Fokuaren kodea	Fokuaren izena	Altuera (m)	Sekzioa (m <sup>2</sup> ) / Diametroa (m)	Katalogazioa	Funtzionamendu-araubidea	Koordenatuak	
							X	Y
2	0100029105-02	Galdaketa-labe birakari baskulagarria 1	25	1,5	B	Foku sistematikoa	528559	4755158
3	0100029105-03	Esferaerdien lerroa	10	0,32		Foku ez-sistematikoa	528592	4755140
4	0100029105-04	Laborategia				Foku ez-sistematikoa	528611	4755179
5	0100029105-05	Galdaketa-labe birakari baskulagarria 2 eta mantentze-labeak + proba-labea	25	2,1	B	Foku sistematikoa	528560	4777189
6	0100029105-06	Zepa-hozkailua	10,5	0,71		Foku ez-sistematikoa	528573	4755219

Halaber, instalazioak emisio difusoak sortu sortuko ditu, batez ere CO<sub>2</sub>, zaliak eta erretenak aurrez berotzeko erabiltzen den sistemako gas naturaleko erregailuetan, eta kargatzeko palen igarotze-gunetan, batetik, eta partikulen emisio difusoak txatarra, aluminio-zepa eta gatz-zepa biltegitratzean eta manipulatzean, bestetik.

Urte jakin batean foku sistematiko batek foku ez-sistematiko gisa funtzionatzen badu, ez da foku horren gaineko kontrolik egin behar urte horretan. Hurrengo urtean egin behar da, baldin eta kontrola salbuesteko baldintzek ez badute bere horretan jarraitzen. Ingurumena zaintzeko dagokion programan justifikatu behar da inguruabar hori.

Foku ez-sistematikoetako bat batez beste urtean hamabi alditan baino gehiagotan funtzionatzen hasten bada, ordubete baino gehiagoz aldi bakoitzean, edo, maiztasuna edozein dela ere, emisioen iraupen orokorra instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, emisio-foku sistematiko gisa erregularizatu behar da.

## E.2.1.3.– Emisioen muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean, isuri atmosferikoak ezin dira maximo hauek baino handiagoak izan:

Fokuak	Izena	Parametroak	Isurtzeen muga-balioak
2	Galdaketa-labe birakari baskulagarria 1	Partikulak, guztira	5 mg/Nm <sup>3</sup>
		Dioxinak eta furanoak (PCDD eta PCDF)	0,1 ng TEQ/ Nm <sup>3</sup>
		Karbono monoxidoa (CO)	200 mg/Nm <sup>3</sup>
		Nitrogeno oxidoak (NOx)	300 mg/Nm <sup>3</sup>
		Sufre dioxidoa (SO <sub>2</sub> )	50 mg/Nm <sup>3</sup>
		COV (COT gisa neurtua)	30 mg/Nm <sup>3</sup>
		Kloruro gaseosoak (HCl gisa)	10 mg/Nm <sup>3</sup>
		Hidrogeno fluoruroa (HF)	1 mg/Nm <sup>3</sup>
		Merkurioa eta horren konposatuak, Hg gisara adierazita	0,05 mg/Nm <sup>3</sup>

Fokuak	Izena	Parametroak	Isurtzeen muga-balioak
5	Galdaketa-labe birakari baskulagarria 2 eta mantentze-labeak + proba-labea	Partikulak, guztira	5 mg/Nm <sup>3</sup>
		Dioxinak eta furanoak (PCDD eta PCDF)	0,1 ng TEQ/ Nm <sup>3</sup>
		Karbono monoxidoa (CO)	200 mg/Nm <sup>3</sup>
		Nitrogeno oxidoak (NOx)	300 mg/Nm <sup>3</sup>
		Sufre dioxidoa (SO <sub>2</sub> )	50 mg/Nm <sup>3</sup>
		COV (COT gisa neurtua)	30 mg/Nm <sup>3</sup>
		Kloruro gaseosoak (HCl gisa)	10 mg/Nm <sup>3</sup>
		Hidrogeno fluoruroa (HF)	1 mg/Nm <sup>3</sup>
		Merkurioa eta horren konposatuak, Hg gisara adierazita	0,05 mg/Nm <sup>3</sup>

Balio horiek baldintza hauei lotuta daude: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa, eta gas lehorra.

Laginketa-aldiko batezbestekoak emisioen muga-balioak gainditzen ez baditu, isurtzeen muga-balioak betetzen direla ulertuko da.

Ondorio horietarako, laginketa-aldiko batezbestekoa honela kalkulatu da: gutxienez 30 minutuko ondoz ondoko hiru neurketaren batezbestekoa, neurketa bakoitzari baimen honetan zehaztutako metodoari dagokion konfiantza-tartea kenduta, edo, horrelakorik ez badago, jarraian zehaztutakoa.

PCDD/Fen kasuan, laginketa-aldiko batezbestekoa honela kalkulatu da: gutxienez 6 orduko laginketa-aldi baterako neurketaren batezbestekoa, neurketa horri baimen honetan zehaztutako metodoari dagokion konfiantza-tartea kenduta, edo, horrelakorik ez badago, jarraian zehaztutakoa.

Baimen horretan ezarritako metodoak zehazten ez badu, neurtutako emaitza bakar baten % 95eko konfiantza-tarteen balioek ez dituzte gaindituko isurtzeen muga-balioen ehuneko hauek:

- Partikulak, guztira: % 30
- Karbono monoxidoa: % 10
- Sufre dioxidoa: % 20
- Nitrogeno dioxidoa: % 20
- Karbono organikoa, guztira: % 30
- Hidrogeno kloruroa: % 40
- Hidrogeno fluoruroa: % 40
- Metal astunak: % 40
- Poliklorodibenzodioxinak eta poliklorodibenzofuranoak: % 40

Ikusten bada isurtzeen muga-balioren bat ez dela betetzen, behar diren zuzenketa-neurriak hartu beharko dira luzamendurik gabe, eta, berehala, ez-betetzearen, zuzenketa-neurrien eta haien epeen berri eman beharko zaio ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailari.

## E.2.1.4.– Gasak bildu eta kanporatzeko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximinien puntu gorena ez da egongo hirugarren apartatuko E.2.1.2 azpiapartatua ezarritako gorenko kotatik behera. Fokuen sekzioak, neurketa-guneak, laginketa-puntuek, neurketa-portuek, irisgarritasun-baldintzek, segurtasun-neurriek eta zerbitzuek bete beharko dute atmosferaren arloan eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritakoa.

Isurketa barreiatuak minimizatzeko helburuarekin, jarioak antzemateko ekipoak erabiliko dira, ingurumenaren kudeaketa egokia egingo da eta instalazioa modu egokian diseinatuko da.

## E.2.2.– Saneamendu-sistema integralean isurtzeko baldintzak.

## E.2.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokalekua.

Isurgunea	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurgunearen UTM koordenatuak
1I	Ur beltzak	Industrialdeko kolektorea	X: 528678 Y: 4755274
2I	Multzo hidraulikoak hozteko urak, zepak eta euri-urak hozteko urak		X: 528610 Y: 4755082
3I	Lingote-dorreak eta euri-urak hozteko urak		X: 528547 Y: 4755090

## E.2.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emariak eta bolumenak.

## 1. isurketa.

Ur beltzak	500 m <sup>3</sup> /urtea
Multzo hidraulikoak hozteko urak, zepak eta euri-urak hozteko urak	66.141 m <sup>3</sup> /urtea
Lingote-dorreak eta euri-urak hozteko urak	6.141 m <sup>3</sup> /urtea

## E.2.2.3.– Emisioen muga-balioak.

Saneamendu-sarera egiten diren isurketen parametroak Araba Garapen Agentziak finkatutakoak izango dira –instalazioak horra egiten ditu isurketak–, eta zerrenda honetan jasota daude, horietako bakoitzerako zehaztutako gehieneko mugak barne:

Parametroak	Sinboloa	Unitatea	Gehieneko balioa	Eguneko batez besteko balioa
Tenperatura	T	°C	40	40
Kolorea		-	Hautemanezina 1/40 disoluzioan	Hautemanezina 1/40 disoluzioan
pH	pH	-	6-9	6-9
Solidoak (0,45 mikrako iragazki batek atxikitako materia partaidetua. Iragazketaren eta pisatzearen bidez zehaztuko da).		mg/l	500	300
Eroankortasuna	-	µS/cm	3000	2000
DBO <sub>5</sub>	-	mg O <sub>2</sub> /l	400	200
OEK	-	mg O <sub>2</sub> /l	600	400
Amonioa	NH <sub>4</sub> <sup>+</sup>	mg/l	60	40
N-amoniakala	N-NH <sub>3</sub>	mg/l	46,5	31,06
Nitrogeno amoniakal erasokorra	N erasokorra	mg/l	120	10

2025eko azaroaren 11, asteartea

Parametroak	Sinboloa	Unitatea	Gehieneko balioa	Eguneko batez besteko balioa
Nitratoa	NO <sub>3</sub>	mg/l	20	10
N-Nitratoa	N-NO <sub>3</sub>	mg/l	6,09	3,04
Nitritoa	NO <sub>2</sub>	mg/l	10	5
N-Nitritoa	N-NO <sub>2</sub>	mg/l	3,26	1,13
Nitrogenoa, guztira	NG	mg/l	70	40
Olioak edo koipeak (animalia- edo landare-jatorrikoak)	O eta K	mg/l	75	10
C10-C40	-	mg/l	Ez dagokio	5
Detergenteak	-	mg/l	10	2
Zianuroak, guztira	ZK <sup>-</sup>	mg/l	Ez dagokio	0,1
Sulfuroak	S <sup>2-</sup>	mg/l	2	Ez da zehaztu
Sulfatoak	SO <sub>4</sub> <sup>2-</sup>	mg/l	1000	Ez da zehaztu
Sulfitoak	SO <sub>3</sub> <sup>2-</sup>	mg/l	5	Ez da zehaztu
Fluoruroak	F <sup>-</sup>	mg/l	10	Ez da zehaztu
Kloruroak	Kl <sup>-</sup>	mg/l	1500	500
Kloro askea	Cl <sub>2</sub>	mg/l	2,5	Ez da zehaztu
Fosforoa, guztira	P guztira	mg/l	15	10
Pestizidak	-	mg/l	0,2	Ez da zehaztu
Aldehidoak	-	mg/l	4	Ez da zehaztu
Fenolak, guztira	-	mg/l	Ez dagokio	0,2
Aluminioa	Al	mg/l	15	2
Artsenikoa	As	mg/l	Ez dagokio	0,05
Barioa	Ba	mg/l	10	Ez da zehaztu
Boroa	B	mg/l	5	Ez da zehaztu
Kadmioa	Cd	mg/l	Ez dagokio	0,05
Kobaltoa	Co	mg/l	0,2	Ez da zehaztu
Kobrea	Cu	mg/l	Ez dagokio	0,5
Kromoa, guztira	Cr/guztira	mg/l	Ez dagokio	0,15
Kromo hexabalentea	Cr6	mg/l	0,05	Ez da zehaztu
Eztainua	Sn	mg/l	5	Ez da zehaztu
Burdina	Fe	mg/l	10	Ez da zehaztu
Manganesoa	Mn	mg/l	2	Ez da zehaztu
Merkurioa	Hg	mg/l	Ez dagokio	0,005
Molibdenoa	Ne	mg/l	0,05	Ez da zehaztu
Nikela	Ni	mg/l	Ez dagokio	0,5
Zilarra	Ag	mg/l	1	Ez da zehaztu
Beruna	Pb	mg/l	Ez dagokio	0,1
Selenioa	Se	mg/l	0,5	Ez da zehaztu
Titanioa	Ti	mg/l	1	Ez da zehaztu
Banadioa	V	mg/l	4	Ez da zehaztu
Zinka	Zn	mg/l	Ez dagokio	1
Toxikotasuna	-	equitox/m <sup>3</sup>	25	Ez da zehaztu
Metalak, guztira	-	mg/l	(*)	Ez da zehaztu

(\*)Zn+Cu+Ni+Al+Fe+Cr+Cd+Pb+Sn+HG&lt;20

Oharra: TEOn arabera laginketa integratu baten bidez GEB kontrolatu behar zaien elementuen kasuan eta enpresak instalatu gabea badu AGAk horretarako eskatutako sistema, laginketa puntual baten bidez egiaztatuko da.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili, emisioen muga-balioak lortzeko.

### E.2.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoetan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, eta, beharrezkoa bada, karakterizatu egin beharko dira, euren izaera eta helmugarik egokiena zehazteko.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek bildu eta biltegitratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu egin behar da, eta, horretarako, baimendutako balorizatzaile bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak deuseztatzeke, ezinbestekoa izango da alde aurretik behar bezala justifikatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik ez dela bideragarria haiek balorizatzea. Birsortzea edo berrerabiltzea lehenetsiko da balorizatzeke beste edozein modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimendurik badago hondakin zehatz batzuk tratatzeko, hondakin horiek instalazio horietara bidali beharko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baldin eta aurreikusten bada baimendutako zaborregian ezabatzea dela hondakinen azken destinoa, hondakin horiek ezaugarritu egingo dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak –hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituen– xedatutakoari jarraikiz, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak –hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena– ezarritako jarraibideen arabera.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitateak –ebazpen honetan daude jasota– orientagarriak dira soilik; kantitate horiek kalkulatzeko, kontuan hartu dira jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinen arteko erlazioa. Azken datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. Hargatik eragotzi gabe abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10.4.d) artikuluan ezarritakoa, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, kasu honetan soilik eskatu beharko da baimena egokitzea: baldin eta sortutako hondakinen kantitatea handitzeak aurretik ezarri diren biltegitratze- eta ontziratze-baldintzak aldatu beharra badakar.

Hondakinak biltegitratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan behar dute. Haien egoera fisiko, likido edo oretsua dela-eta, edo haien inpregnazio-mailarengatik isurketak eragin edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakin arriskutsuentzat ontziak edo bilketa-sistema egokiak jarriko dira izan litezkeen isuriak kanpora isurtzea saihesteko. Hauts-itxurako hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak arrastatzea saihestuko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak lehen aldiz atera aurretik, baimendutako kudeatzaileari ematen zaizkion hondakinak behar bezala identifikatu eta sailkatzen direla justifikatu beharko da, bereziki hondakin arriskutsuen izaerari eta arriskugarritasun-ezaugarriei dagokienez, betiere honako hauetan ezarritako irizpideei jarraikiz: Europako Hondakinen Zerrenda, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiz argitaratua, zeinaren bidez aldatzen baita Hondakinen Zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia, eta Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren –hondakinei buruzko zuzentarau horrek zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituen– III. eranskina. Hori egiaztatu ondoren, eguneratu egingo dira baimen honetan jasota dauden eta berori izapidetzeko orduan indarrean zeuden identifikazioa eta sailkapena.

Hondakinak desagertu, galdu edo isurtzen baldin badira, jazoera hori berehala jakinarazi beharko zaie bai Ingurumen Sailburuordetzari bai Legutioko Udalari.

2025eko azaroaren 11, asteartea

Sortutako hondakinak beste autonomia-erkidego batzuetara lekualdatzeko, Estatuaren lurraldearen barruan hondakinak lekualdatzea arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egingo den arau horren garapena bete beharko dira.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, bat etorritz Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikuluekin.

Nahitaezko aurretiko jakinarazpen-kasuetan, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31 artikuluan aurreikusitako eta ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 9. artikuluan garatutako kausetako bat gertatzen denean, hala organo honek nola helmugako autonomia-erkidegoko organo eskudunak hondakinak garraiatzearen aurka egin ahalko dute; arrazoitutako erabakia garraio-jakinazpena aurkeztu eta gehienez hamar eguneko epean jakinarazi beharko diote operadoreari.

Hondakinak Espainiatik kanpora esportatzen diren kasuetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko apirilaren 11ko 2024/1157 (EB) Erregelamenduan –hondakinen lekualdaketei buruzkoa– ezarritakoa bete beharko da. Erregelamendu horrek 1257/2013 (EB) eta 2020/1056 (EB) erregelamenduak aldatzen ditu, eta 1013/2006 (EE) Erregelamendua indargabetzen du.

### E.2.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Honako hauek dira sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak:

EHZ	Hondakinaren deskribapena	Arriskugarritasun-ezaugarriak	Kudeatzeko bidea	Biltegitratze-mota	Sortze-prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
10 03 08*	Gatz-zepak	HP12	R4	Estalkipean	Galdaketa-labe birakarietan	30000000
10 03 15*	Aluminio-zepak	HP12	Autokudeaketa	Solteak jasoak estalkipean		3960000
10 03 23*	Mauka-iragazkietatik datozen hautsak	HP12	R4	Big bag-ak		3500000
15 02 02*	Mahuka-iragazki erabiliak	HP12	Autokudeaketa	Edukiontzia		477000
16 05 04	Bonbonak (prozesuan atzera botatzea)	HP14	R3	Soltean		1000
08 01 11*	Pinturak eta deribatuak	HP3	R13	Bidoia	Mantentze-lanak	200
12 01 09*	Olio urarekin	HP6	D15	Identifikatutako bidoia		760
13 01 10*	Olio erabilia	HP6	R13	Identifikatutako bidoia		670
13 05 02*	Lohi hidrokarburatuak	HP5	D15	Zuzeneko bilketa		20000
14 06 03*	Disolbatzaile ez-halogenatua	HP6/HP14	R13	Makina gordailua		385
15 01 10*	Plastikozko ontziak	HP6/HP14	R5	Big bag-ak		44
15 01 10*	Metalezko ontziak	HP6/HP14	R5	Big bag-ak		660
15 02 02*	Trapuak eta xurgatzaileak	HP3	R13	Bidoia		882
16 01 07*	Olio-iragazkiak	HP5	R13	Bidoi metalikoa		250
16 01 14*	Glikoldun urak	HP6	R13	Bidoia		7037
16 01 21*	Erregai-iragazkiak	HP5	D15	Bidoi metalikoa		250
16 05 04*	Aerosolak	HP3/HP5	R13	Identifikatutako bidoia		228
16 06 01*	Berun azidozko bateriak	HP8	R13	Bidoia		401
16 06 03*	Pilak	HP14	R13	Identifikatutako bidoia		10
20 01 21-31*	Fluoreszenteak	HP6/HP14	R13	Edukiontzi identifikatua		102
20 01 35*	Ekipo elektrikoak eta elektronikoak	HP6/HP14	R4	Estalkipean biltegitratzea	91	

a) Hondakin arriskutsu bakoitzari dagokion izendapena eta kodifikazioa hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta ezartzen da, eta horiei buruzko informazioa baimena izapidetzerakoan jasotzen da. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, oinarriko beste batzuk, euren izaera dela-eta, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran zehar. Horiek definitzen dituzte mota eta hondakinaren osagai arriskutsuak. Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa egokia dela egiaztatzeko eta Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Euskadiko 2030 Planean ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, organo honek onartu egin beharko du hondakin bakoitzaren tratamendu-kontratuetan jasotako informazioa, dagokion baimendutako kudeatzaileak horretarako eskaera egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, berreskuratzea edo balorizatzea kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen tratamendu-kontratuetan uzte- edo ezabatze-kodeak balioztatzea eskatzen bada.

b) Prozesuan sortutako gatz-zepak biltegitratzeko parkea estalkipean kokatuko da; lurzoru estankoak izan beharko ditu, eta kutsatutako likidoak jasotzeko sistema edukiko du, ura husteko sistemara joan ez daitezen.

c) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak independenteak izango dira, baldin eta hondakin-tipologia horiek isurketa baten ondorioz nahasiz gero arriskutsuagoak edo kudeatzen zailagoak bihurtzen badira.

d) Hondakin arriskutsuak ontziratzeke, indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dira. Hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek etiketa argi, irakurgarri eta ezabagaitza eduki beharko dute, eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak isurita edo lurrunduta gal ez daitezen.

e) Hondakin arriskutsuek ezin izango dute 6 hilabete baino gehiago biltegitratuta egon. Ingurumen-organok epe hori aldatu ahalko du, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio, baldin eta gizakion osasuna eta ingurumena babestuko dela bermatzen bada.

f) Hondakinak baimendutako kudeatzailearen instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko eskakizuna izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartzen dituela. Agiri horretan, hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik, eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana bidali aurretik. Beharrezkoa bada, karakterizazio zehatza egingo da, proposatutako tratamendua egokia den aztertzeke. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak lekualdatu aurretik eta horretarako egin beharreko jakinarazpena, hala badagokio, araudian zehaztutako moduan aurretiaz eginda dagoela, identifikaziorako agiria bete beharko da; agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko du jatorritik helmugaraino. Refinería de Aluminio SLk artxiboan erregistratu eta gutxienez hiru urtez gorde beharko ditu tratamendu-kontratuak eta identifikazio-agiriak edo agiri ofizial baliokideak.

h) Egiaztatu egin beharko da ezen baimendutako kudeatzailearen instalazioetara hondakin arriskutsuak eramateko garraioak honako eskakizunak betetzen dituela: halako salgaiak garraiatzeari buruzko indarreko legerian eskatutakoak.

i) Refinería de Aluminio SLk Industriako Olio Erabilien Kudeaketa Arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko du olio erabilia.

j) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak –besteak beste, lanpara fluoreszenteenak– kudeatuko dira Gailu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera. Halaber, Pilei eta Metagailuei eta Haien Hondakinen Ingurumen

Kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute pilen eta metagailuen hondakinek. Baimendutako kudeatzailearen onarpen-agiria izateko, eraman aurretiko jakinarazpena egiteko eta kontrol- eta jarraipen-agiria betetzeko betebeharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-entitateei ematen zaizkienak ere, gaika bildutako hiri-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudea ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu. Toki-entitateei egindako entregak justifikatzeko agiriak hiru urtez gorde beharko dira gutxienez.

k) Refinería de Aluminio SLk poliklorobifeniloak dituzten edo eduki ditzaketen gailuak dituenek, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu Poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren eskakizunak eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

l) Refinería de Aluminio SLk Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1005/2009/EE Erregelamenduak adierazten dituen substantzia erabiliak baditu (ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzkoa da erregelamendua), berreskuratu egingo dira substantzia horiek, alderdiek onetsitako bitarteko teknikoaren bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarri den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz deuseztatze edo birziklatze edo birsortze, aparatuak berrikusteko edo mantentzeko lanak egiten direnean edo aparatuak desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

m) Amiantoak daukaten hondakinak hautemanez gero, Refinería de Aluminio SLk amiantoak ingurumenaren eragitea prebenitzeko eta eragin hori murrizteko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan (3. art.) ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoak duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak Amiantoarekin lan egitean segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxienezko baldintzak ezartzen dituen martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera egingo dira.

n) Hondakin arriskutsuen ekoizle gisa, artxibo elektronikoko batean, honako datu hauek jaso beharko dira, ordena kronologikoan: sortutako hondakinen kopurua, mota eta jatorria, bai eta berrerabiltzeko, birziklatzeko, beste balorizazio-eragiketa batzuk egiteko eta deuseztatze produktu, material edo substantzien eta horien ondoriozko hondakinen kopurua ere; eta, hala badagokio, eragiketa horien ondorioz sortutako hondakinaren helmuga, bilketaren maiztasuna, garraio-bidea eta aurreikusitako tratamendu-metodoa ere inskribatuko dira, bai eta produktu, material eta substantzien helmuga ere. Artxibo kronologikoaren inskripzioak, aplikatzeko denean, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinen arabera baimendutako tratamendu-eragiketa bakoitzeko egingo dira.

o) Bat etorri Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan xedatutakoarekin, Refinería de Aluminio SLk, datuak jaso ondorengo urteko martxoaren 1a baino lehen eta dagokion ingurumena zaintzeko programaren barruan, artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria bat aurkeztu beharko du, zeinak barne hartu beharko baitu lege horren XV. eranskinean agertzen den gutxienezko edukia.

p) Urtean 10 tonatik gora hondakin arriskutsuren hasierako ekoizlea bada, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 18.7 artikuluari jarraituz, Refinería de Aluminio SLk minimizazio-plan bat izan beharko du, eta, planaren barruan, sortutako hondakin arriskutsuen kopurua eta horien arriskugarritasuna murrizteko hartuko dituen neurriak jaso beharko ditu. Plana agintaritza eskudunen eskura egongo da eta, lau urtean behin, ekoizleak emaitzen berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari. Aurreko betebeharretik salbuetsita egongo da EMAS ziurtagiria badu, edo mota horretako hondakinak minimizatzeko neurriak barne hartzen dituen beste sistema baliokideren bat; horretarako, dagokion informazioa ingurumen-adierazpen baliozkotuan jaso beharko da.

q) Refinería de Aluminio SL industria-ontzi baten azken jabea bada, abenduaren 27ko 1055/2022

Errege Dekretuaren 44. artikuluan xedatutako betekizunak bete beharko ditu.

r) Apartatu honetako g) eta h) apartatuetan (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta o) eta p) apartatuetan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira, transakzio elektronikoz bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

s) Hondakin arriskutsuak Espainiatik kanpora esportatzen diren kasuetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko apirilaren 11ko 2024/1157 (EB) Erregelamenduan – hondakinen lekualdaketei buruzkoa– ezarritakoa bete beharko da. Erregelamendu horrek 1257/2013 (EB) eta 2020/1056 (EB) erregelamenduak aldatzen ditu, eta 1013/2006 (EE) Erregelamendua indargabetzen du.

#### E.2.3.2.– Hondakin arriskugabeak.

Sustatzaileak hondakin arriskugabe hauek aitortu ditu:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zer prozesuri lotuta dagoen	Ekoizpen zenbatetsia (t/urte)
Papera eta kartoia	15 01 01	Zerbitzu orokorrak	1,5
Plastikoa	15 01 02		1
Zura	15 01 03		50
Tonerra eta kartutxoak	16 02 14-62		0,05
Hiri-hondakinen nahasteak	20 03 01		25
Konponketen hormigoia	17 01 07	Konponketak	300
Hondakin-urak, hozte-dorreak	10 03 28	Mantentze-lan puntuala	
Txatarrak	16 01 17		300
Kutxatilen garbiketako lohiak	20 03 04		10
Overband ferrikoa	19 12 02	Overband imana instalatzea	300
Metal ez-burdinazkoak	19 12 03	Galdaketa-labe birakarietan	300
Labeko erregogorra	16 11 04	Aluminio-galdaketa	1

a) Bat etorri ezazpen honen E.2.3 apartatuan hondakinak bereizteaz eta hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioaz xedatutakoarekin, “hiri-hondakintzat jo daitezkeen hondakin-nahasteek” ezin dute hondakin-zati balorizagarriak eduki. Horri dagokionez, egungo egoeran Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin-fraczio balorizagarriak hauek dira: papera eta kartoia, zura, plastikoak, metal ferrikoak eta metal ez-burdinazkoak.

b) Bat etorri hirugarren apartatuko E.2.3 azpiapartatuan hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei dagokionez xedatutakoarekin, hondakinak balorizatu egin beharko dira, eta baimendutako balorizatzaile bati eraman beharko zaizkio horretarako. Hondakinak deuseztatzeko, ezinbestekoa izango da alde aurretik behar bezala justifikatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik ez dela bideragarria haiek balorizatzea. Justifikazio tekniko hori lortzeko, hondakin hori onartzeko baimendutako hiru kudeatzailek ezetza eman behar diote kasuan kasuko hondakina balorizatzeari.

c) Ontzi erabiliak eta ontzi-hondakinak materialaren arabera behar bezala bereizita eta baldintza egokitan entregatu behar dira; ontzi erabiliak agente ekonomiko (hornitzaile) bati emango zaizkio berrerabiltzeko, eta ontzi-hondakinak, berriz, baimendutako berreskuratzaile, birziklatzaile edo balorizatzaile bati emango zaizkio.

d) Hondakin horiek deuseztatzeko badira, ezingo dira urtebete baino gehiagoz biltegitatuta eduki. Hondakinen azken helburua balorizatzea bada, ordea, 2 urtez gorde ahal izango dira.

e) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta dituela. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Refinería de Aluminio SLk erregistratu eta artxibategian gorde beharko ditu tratamendu-kontratuak edo haien agiri ofizial baliokideak, nahitaezkoak badira, gutxienez hiru urtez.

f) Hondakina zabortegean biltegituz gero, jarraipen- eta kontrol-agiria bete beharko da hondakin arriskugabea lekualdatu aurretik, Hondakinak hondakindegian biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.

g) Hori hala izanik, hondakinak lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, bat etorri Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikuluekin.

h) Refinería de Aluminio SL industria-ontzi baten azken jabea bada, abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 44. artikuluan xedatutako betekizunak bete beharko ditu.

i) Urtean 10 tona hondakin arriskugabe baino gehiago sortuz gero, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluen arabera, Refinería de Aluminio SLk formatu elektronikoko artxibo kronologiko bat izan beharko du, non jasoko baitira, ordena kronologikoan, sortutako hondakinen kopurua, mota eta jatorria, bai eta berrerabiltzeko, birziklatzeko, beste balorizazio-eragiketa batzuk egiteko eta deuseztatzeko produktu, material edo substantzien eta horien ondoriozko hondakinen kopurua ere; eta, hala badagokio, eragiketa horien ondorioz sortutako hondakinaren helmuga, bilketaren maiztasuna, garraioa eta aurreikusitako tratamendu-metodoa ere inskribatuko dira, bai eta produktu, material eta substantzien helmuga ere. Artxibo kronologikoaren inskripzioak, aplikatzekoa denean, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinen arabera baimendutako tratamendu-eragiketa bakoitzeko egingo dira. Artxibo kronologikoa hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanetarako eskatutako egiaztagirietako informazioa oinarri hartuta egingo da. Artxibo kronologiko hori bost urtez gorde beharko du gutxienez, eta urtero bidali beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

j) Apartatu honetako e), f) (kudeatzaileak EAEn daudenean) apartatuetan eta g), i) eta j) apartatuetan adierazitako agiriak Ingurumeneko Sailburuordetzara bidaliko dira transakzio elektronikoz bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eskaintako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

k) Hondakin arriskugabeak Espainiatik kanpora esportatzen diren kasuetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko apirilaren 11ko 2024/1157 (EB) Erregelamenduan – hondakinen lekualdaketei buruzkoa– ezarritakoa bete beharko da. Erregelamendu horrek 1257/2013 (EB) eta 2020/1056 (EB) erregelamenduak aldatzen ditu, eta 1013/2006 (EE) Erregelamendua indargabetzen du.

#### E.2.4.– Ontziak merkaturatzea.

Halaber, Ontzien eta ontzi-hondakinen abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 43. artikuluan hornitzaileei ezartzen zaizkien betebeharrak bete beharko ditu.

Sustatzailea behartuta dago bosturteko Prebentzio eta Ekodiseinuko Enpresa Plana aplikatzera, urte natural batean, ontziratutako produktuak edo industria- edo merkataritza-ontziak merkaturatzen baditu eta jarraian zehazten diren kantitateak gainditzen dituzten hondakinak sortzen baditu:

– 250 tona, soilik beira bada.

2025eko azaroaren 11, asteartea

- 50 tona, soilik altzairua bada.
- 30 tona, soilik aluminioa bada.
- 20 tona, soilik plastikoa bada.
- 20 tona, soilik zura bada.
- 15 tona, soilik kartoia edo material konposatuak badira.

– 300 tona, hainbat material badira, eta bakoitzak, bera bakarrik hartuta, ez baditu lehen aipatutako kantitateak gainditzen.

Prebentzio eta Ekodiseinuko Enpresa Plan horretan, kontuan hartu beharko ditu ontzi-hondakinak prebenitzeko tresnetako zehaztapenak. Halaber, aurreko planetako helburuen betetze-mailaren laburpena sartu beharko du, prebentzio-helburu kuantifikatu berriak adierazita, baita horiek erdiesteko neurriak eta betetzen dituela kontrolatzeko mekanismoak ere, abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 18. artikuluari jarraikiz. Plana amaitu eta hiru hilabeteko epean, planari buruzko txostena bidali beharko da, bertan adierazita zenbateraino bete diren planean jasotako prebentzio-neurriak.

Bost urtean behin bidali beharko ditu aipatu bi agiri horiek, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera.

#### E.2.5.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Refinería de Aluminio SLk agiri bakar bat aurkeztuko du, 2020ko urtarrilaren 23ko Aginduaren bidez onartutako jarraibide teknikoari jarraikiz, edukiei eta entrega-aldizkakotasunari dagokienez, gutxienez 5 urtean behin.

Nolanahi ere, lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko lanak egin ditzakeen egiaztatutako entitate batek egin beharko du agiri bakarra, eta eduki hauek izango ditu: lurzoruaren egoerari buruzko aldizkako txostena, oinarritzko txostena eta lurzoruaren eta lurpeko uren kontrola eta jarraipena egiteko agiriak, jarraian aipatutako araudian ezarritako obligazioak beteta betiere.

Sustatzaileak beharrezko diren neurriak hartu beharko ditu aurreko paragrafoan aipatutako agiritan jasotako lurzoruaren eta lurpeko uren babesa ziurtatzeko.

– 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, lurzoria kutsatzeko arriskua eragiten duten jardueren zerrenda eta lurzoriak kutsatu deklaratzeko irizpideak eta estandarrak ezartzen dituena.

– 815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, zeinaren bidez onartzen baita Industriako Isurpenen Erregelamendua eta garatzen baita Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea.

– 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzoria Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzekoa.

– 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

– Agindua, 2020ko urtarrilaren 23koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez jarraibide tekniko bat onartzen baita, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzkoa, lurzoruaren eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarritzko txosten bat eskatzeari lotua.

Lur-mugimenduak.

Sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu instalazioetan egindako aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez:

1.– Aurreikusten bada aldaketaren bat egin behar dela instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan, eta aldaketa horren ondorioz lurra mugitu behar badira:

a) Bat etorriz ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25.1.c) artikularekin, induskatu beharreko materialak (lurra, eraiste-hondakinak, etab.) karakterizatu egin beharko ditu jardueraren sustatzaileak, ekintza kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horiek kudeatzeko bide egokiena zehaztearen.

b) Jarduketa horretan aurreikusten bada induskatu beharreko materialen bolumena 500 m<sup>3</sup>tik gorakoa dela (zolatak barne), edo jarduketa egin bitartean gainditze hori antzemango balitz, nahitaezkoa izango da lurzorua kalitatea ikertzeko eta oneratzeko akreditatutako entitate batek egindako indusketa selektiborako plan bat aurkeztea. Indusketa-planak abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organoak onetsi beharko du, gauzatu aurretik.

c) Induskatu beharreko bolumena 500 m<sup>3</sup>-tik beherakoa bada, aldaketaren jakinarazpenak honako informazio hau jaso beharko du:

– Jarduketaren pertsona fisiko edo juridiko sustatzailearen eta jarduketa burutuko duen kontratadunaren identifikazioa.

– Jarduketaren xede den lekua non dagoen, baita Lurzorua Kalitatearen Administrazio Erregistroaren erreferentzia ere.

– Jarduketaren xede den eremuaren mugaketa eta azalera. Jakinarazpenean, lurzati eta jarduketa-eremua zehatz-mehatz non dauden jakitea ahalbidetzen duten planoak erantsiko dira.

– Jardueraren deskribapen xehatua.

– Induskatuko diren materialen bolumena, zolatak barne.

– Ingurumen-jarraipeneko lanen eta azken txostena egitearen arduradunaren identifikazioa; artikulua honetan aipatutako kasuetan entitate egiaztatua izan beharko du.

– Jarduketa hasteko aurreikusitako datak.

d) Aurreko kasuetako edozeinetan, obra egin ondoren, azken txostena bidali beharko du. Bertan, luraren karakterizazioaren emaitzak adierazi beharko dira; horrez gain, induskatutako materialen berrerabilera edo kudeaketa egokia egiaztatzeko txosten bat ere bidali beharko da. Indusketaren bolumena 100 m<sup>3</sup>-tik gorakoa bada, entitate egiaztatua batek egingo ditu ingurumen-jarraipenerako lanak eta txostena.

e) Arau orokor gisa, Kutsatutako lurzoruetan indusketa selektiboak egiteko gidan jasotzen diren irizpideak beteko dira. Esteka honetan eskura daiteke gida:

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/kutsatutako-lurzoruetan-indusketa-selektiboak-egiteko-gida>

f) Soberakinak hondakindegian biltegitratuz hustu nahi izanez gero, Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa. Oro har, laginketa gauzatzeko, gidaliburuaren 10.2.6 apartatua (induskatu behar diren lurzoruetan in situ egindako laginketa) biltzen

diren induskatu beharreko materialen karakterizazio-kanpaina diseinatzerakoan kontuan hartu behar diren oinarriko irizpideak beteko dira.

g) Soberako materialak instalazio berean berrerabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako B-EBA (industria-erabilera) balioaren azpikoa. Horrez gain, lur horien hidrokarburo-edia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, entitate egiaztatu batek egin beharko ditu laginketa eta analisia, honen arabera: 199/2006 Dekretua, urriaren 10ekoa, Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko entitateak egiaztatzeke sistema ezartzen duena, eta entitate horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituen.

h) Ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutako A-EBA ebaluazioko balio-adierazleak eta TPHetarako 50 mg/kg baino balio txikiagoak lortzen dituzten lurak lur garbitzat hartuko dira, eta beraz, onartu egingo dira baimendutako edozein betelantarako.

i) Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahalko da. Lurzoru naturalaren parekoa den substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpidea beteko da.

2.– Aurreikusten bada lur-mugimendua dakarren aldaketa egitea instalazioa baimenduta dagoen lurzatitik kanpo (lurzoru berria okupatuz) eta okupatu nahi den lurzoru berriak lehenago izan badu ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 1. eranskinean aipatutako jardueraren bat, sustatzaileak lurzoru gaiei buruzko adierazpen bat lortu beharko du, egin nahi diren aldaketak egiten hasi aurretik.

Era berean, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22.2 artikulua arabera, lurraren kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, sailburuordetza horrek ezar ditzan hartu beharreko neurriak, bat etorritik, betiere, aipatutako 4/2015 Legearen 23.1.e) artikuluaekin.

#### E.2.6.– Zaratari buruzko baldintzak.

Refinería de Aluminio SLk beharrezko neurriak hartuko ditu, instalazioak kanpoko ingurumenera zaratarik ez igortzeko, urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren III. eranskineko B1 taulan muga-balio gisa ezarritako zarata-mailak baino handiagoa denik. Errege-dekretu horren bidez, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen da, arau horren IV. eranskineko prozeduren arabera ebaluatutako zonakatzeko akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokienez. Hauek dira, hain zuzen, muga-balioak:

Eremu akustiko mota	Zarata-indizeak		
	$L_{K,d}$ (eguna)	$L_{K,e}$ (arratsaldea)	$L_{K,n}$ (gaua)
e) Gehienbat osasun, irakaskuntza eta kulturarako erabilera duten eta kutsadura akustikoaren aurkako babes berezia behar duten lurralde-sektoreak.	50	50	40
a) Gehienbat bizitegi-erabilera duten lurralde-sektoreak.	55	55	45
d) Gehienbat hirugarren sektoreko lurzoruak dituzten lurralde-sektoreak, c) apartatuan adierazi gabeak.	60	60	50
c) Gehienbat jolas-jardueretarako eta ikuskizunetarako erabilera duten lurralde-sektoreak.	63	63	53
b) Gehienbat industria-erabilerarako lurzorua duten lurralde-sektoreak.	65	65	55

Lokal mugakideak egonez gero, lokal horien erabilera kontuan hartuta, instalazioak ezingo du III. eranskineko B2 taulan ezarritako muga-balioak baino zarata-maila handiagoa transmititu haietara, betiere aipatutako urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren IV. eranskineko prozeduren arabera ebaluatuta.

2025eko azaroaren 11, asteartea

Ezarritako zarata-immisioaren muga-balioak errespetatzen direla joko da, aipatutako IV. eranskinen ezarritako prozeduren arabera ebaluatutako adierazle akustikoen balioek, urtebeteko epean, honako baldintza hauek betetzen baldin badituzte:

– Urteko batez bestekoek ez dituzte gainditzen aipatutako III. eranskineko B1 edo B2 taulek ezarritako balioak.

– Eguneroko balioek ez dituzte 3 dB-tan gainditzen aipatutako III. eranskineko B1 edo B2 taulek ezarritako balioak.

– Lkeq, Ti indizean neurtutako balioek ez dituzte 5 dB-tan gainditzen aipatutako III. eranskineko B1 edo B2 taulek ezarritako balioak.

Zamalanetako jarduerak eta materialak kamioietan garraiatzeko jarduerak egitean sortzen den zarata ezingo da izan sentikortasun akustiko handieneko eremuetako ingurumen-maila baino askoz handiagoa.

F) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan eta apartatu hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

F.1.– Emisio atmosferikoak kontrolatzea.

a) Refinería de Aluminio SLk isurketak kontrolatu beharko ditu, honako informazio honen arabera:

Fokuak	Izena	Neurketa-parametroak	Metodoak	Kontrolen maiztasuna
2	Galdaketa-labe birakari baskulagarria	Partikulak, guztira	UNE-EN 13284-2	Sei hilean behin
		Karbono monoxidoa (CO)	UNE-EN 15058	
		Nitrogeno oxidoak (NOx)	UNE-EN 14792	
		Sufre dioxidoa (SO <sub>2</sub> )	UNE-EN 14791	
		Kloruro gaseosoak (HCl gisa)	UNE-EN 1911	
		Floruroak (HF)	UNE-ISO 15713	
		KOG	UNE-EN 12619	Urtean behin
		Dioxinak eta furanoak	UNE-EN 1948, 1., 2. eta 3. zatiak	
		Zinka, beruna, kromoa, kobrea eta manganesoa (Zn+Pb+Cr+Cu+Mn) (mg/Nm <sup>3</sup> )	UNE-EN 14385	Bi urtean behin
		Nikela eta artsenikoa (Ni+As) (mg/Nm <sup>3</sup> )	UNE-EN 14385	
		Kadmioa eta merkurioa (Cd+Hg) (mg/Nm <sup>3</sup> )	UNE-EN 14385 eta UNE-EN 13211	
Merkurioa eta horren konposatuak, Hg gisara adierazita	UNE-EN 13211	Urtean behin		

2025eko azaroaren 11, asteartea

Fokuak	Izena	Neurketa-parametroak	Metodoak	Kontrolen maiztasuna
5	Galdaketa-labe birakari baskulagarria 2 eta mantentze-labeak + proba-labea	Partikulak, guztira	UNE-EN 13284-2	Sei hilean behin
		Karbono monoxidoa (CO)	UNE-EN 15058	
		Nitrogeno oxidoak (NOx)	UNE-EN 14792	
		Sufre dioxidoa (SO <sub>2</sub> )	UNE-EN 14791	
		Kloruro gaseosoak (HCl gisa)	UNE-EN 1911	
		Floruroak (HF)	UNE-ISO 15713	
		KOG	UNE-EN 12619	Urtean behin
		Dioxinak eta furanoak	UNE-EN 1948, 1., 2. eta 3. zatiak	
		Zinka, beruna, kromoa, kobrea eta manganesoa (Zn+Pb+Cr+Cu+Mn) (mg/Nm <sup>3</sup> )	UNE-EN 14385	Bi urtean behin
		Nikela eta artsenikoa (Ni+As) (mg/Nm <sup>3</sup> )	UNE-EN 14385	
		Kadmioa eta merkurioa (Cd+Hg) (mg/Nm <sup>3</sup> )	UNE-EN 14385	
Merkurioa eta horren konposatuak, Hg gisara adierazita	UNE-EN 13211	Urtean behin		

b) Puntu honetako a) apartatuan aipatutako neurketa guztiak Administrazioaren II. mailako ingurumen-lankidetzako entitate (ILE) batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan jasotzen den bezala; eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek, berriz, Ingurumeneko sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren eskakizun guztiak bete beharko dituzte, batik bat honako hauei dagozkienak: neurketaren helburua eta plana, neurketen adierazgarritasuna, neurketa kopurua eta neurketa bakoitzaren banako iraupena eta erreferentzia-metodoak hautatzeko irizpidea.

c) Halaber, a) apartatuan azaldutako emisio-foku baten kontrola egin behar den urtean, foku horrek funtzionatzen badu urtean hamabi aldiz baino gutxiagoko batez besteko maiztasunarekin, eta emisio bakoitzak ordubete baino gehiago irauten duela, edo, bestela, edozein maiztasunarekin, baldin eta emisioaren iraupen globala instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gora bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren kontrolik egitea, eta hurrengo urtean egin beharko da, baldin eta kontrolatik salbuesteko baldintzek irauten ez badute. Inguruabar hori dagokion urteko ingurumena zaintzeko programan justifikatu beharko da.

#### F.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egingo da eguneratutako agiriekin, honako hauetan ezarritakoari jarraikiz, betiere: Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duen eta hura ezartzeko oinarrizko xedapenak finkatzen dituen urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua eta Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren III. eranskina.

“Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da”.

## F.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkezten dituen agirien arabera, analitika hauek egingo dira:

Isurgunea	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrola egitea	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1I	Ur beltzak	AGA	Industrialdeko kolektorea	Hamabostean behin	ILE
2I	Multzo hidraulikoak hozteko urak, zepak eta euri-urak hozteko urak				
3I	Lingote-dorreak eta euri-urak hozteko urak				

b) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldian egingo dira beti.

c) Isurketak baimenaren eskakizun guztiak betetzen dituela iritziko da, baldin eta puntu honetako a) apartatuan ezarritako kontrol-parametro guztiek betetzen badituzte ebazpen honen hirugarren apartatuko E.2.2.3 azpiapartatuan ezarritako mugak.

d) “Entitate Laguntzaile” batek –edo, hala badagokio, saneamendu-sarearen organismo kudeatzaileak– egingo eta ziurtatuko du kanpo-kontrol bakoitza –bai laginak hartzea bai ondoren aztertzea–, eta aurreko puntuetan aipatutako parametro bakoitzean egingo da. Sustatzaileak, isurgune bakoitzeko, lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izan beharko da, edo, bestela, lagin puntual adierazgarria.

e) Administrazioaren lankidetzaren entitateak hartuko ditu laginak eta egingo du ondorengo analisia, eta berak egingo ditu egiaztapenak ere. AGAk kontratatuko du entitate hori, beharrezkotzat jotzen duen maiztasunarekin.

f) AGAk enpresari bidaliko dizkio isurketen kontrolen emaitzak, laginak hartzen direnetik aurrera hilabeteko epean.

g) Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzari igorriko zaizkio, ebazpen honen bigarren apartatuko F.5 azpiapartatuan ezarritako epeetan eta baldintzetan.

## F.3.– Zarata kontrolatzea.

a) Ebaluazioa indize akustiko hauek kalkulatzeko metodoen bidez egin beharko da: Ld, Le, Ln, LAeq,Ti eta LAeq,60 segundo.

b) Urtero, Lkeq, Ti indize akustikoaren ebaluazioa egingo da; horretarako, jarduera egiten den lurzatiaren kanpoaldean neurketak egingo dira, zarata kanpoaldera transmititzeko arriskurik handiena dagoen eremuan.

c) Neurketa bidezko ebaluazio guztiak II. mailako administrazioeko lankidetzaren entitate batek egin beharko ditu, bat etorriz urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoarekin. Erakunde horrek UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren araberrako egiaztagiria eduki beharko du akustikaren arloan espazio- eta denbora-laginketa egiteko. Nolanahi ere, ingurumen-organoak zaindu egingo du ebaluazio horiek egiten dituzten entitateek gaitasun tekniko egokia dutela.

d) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

## F.4.– Jardueraren adierazleak.

Urtero, sustatzaileak jardueraren funtzionamenduari buruzko parametro adierazle hauen jarraipena egingo du, ingurumenean duten eraginari dagokionez:

Ingurumen-gaia	Adierazlea	Unitatea
Ekoizpena	Aluminio-lingoteen ekoizpena	Guzt.
	Aluminio likidoaren ekoizpena	Guzt.
Lehengaien eta osagarrien kontsumoa	Aluminio-txatarraren kontsumoa, guztira	t/t ekoitziak
	Gatz urgarriaren kontsumoa	t/t ekoitziak
	Nitrogenoaren kontsumoa	m <sup>3</sup> /t ekoitziak
	Oxigeno-kontsumoa	m <sup>3</sup> /t ekoitziak
Ur-kontsumoa	Ur-kontsumoa	m <sup>3</sup> /t ekoitziak
Energia-kontsumoa	Elektrizitate-kontsumoa	Kwh/t ekoitziak
	Gas naturalaren kontsumoa	m <sup>3</sup> /t ekoitziak
	Gasolio-kontsumoa	l/t ekoitziak
Isuri atmosferikoak	Partikula solidoen emisioak	mg/t ekoitziak
	SO <sub>2</sub> emisioak	mg/t ekoitziak
	NO <sub>x</sub> emisioak	mg/t ekoitziak
	COT emisioak	mg/t ekoitziak
Hondakinak sortzea	Aluminio-zepak sortzea	t/t ekoitziak
	Gatz-zepak sortzea	t/t ekoitziak
	Mahuka-iragazkietan hautsak sortzea	t/t ekoitziak
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isuriek in lotura duten gertakarien kopurua (ingurune hartzailea zehaztu: airea, ura, lurzorua)	BAI/EZ zenbatekoa
Ingurumena Kudeatzeko Sistema (IKS)	Ekoscan/urte edo ISO14001/urte edo EMAS/urte	BAI/EZ Zein/urte

## F.5.– Emaizak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta analisien emaitzak behar bezala erregistratu behar dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara igorri, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webguneko entrega-prozedura telematikoari jarraikiz:

<https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-tramite/eu/>

Era horretan, aipatutako programak zehaztutako aldi egiten diren kontrol guztiak, ibilgura edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, ingurumena zaintzeko programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, eta erreferentziako urtea amaitu ondoren.

Era berean, urtean behin baino gehiagotan egiten diren kontrolak kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan baino ez dira bidaliko.

Emaizta horiek urtero bidaliko dira, martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintza-programaren emaitzekin batera. Txosten horretan jasoko dira babes- eta zuzenketa-neurrien eta prozeduren kontrolerako eta ingurumenaren kalitaterako sistemen funtzionamendua eta emaitzen analisia, epe horretan izandako gertakari nagusiak bereziki aipatuta, haien balizko kausak eta konponbideak azalduz; halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aldeztu aurretik hala egin ez bada.

Ezarri diren baldintzak urratzen diren kasuetan bakarrik, gertatutakoaren berri izan ondoren, bidali beharko zaio berehalako jakinarazpena Ingurumen Sailburuordetzari, helbide elektroniko hau erabilia: [ippc@euskadi.eus](mailto:ippc@euskadi.eus)

Era berean, ez-betetzea poligonoko saneamendu-kolektore nagusira isurtzeari badagokio, baimendutako mugetatik kanpo, REFIALek berehala jakinarazi beharko dio AGAri ere.

#### F.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina egin beharko du, eta bertan bildu beharko ditu aurkeztutako agirietan proposatutako betebeharrak eta ebazpen honetan jasotakoak. Programa horrek honako hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Era berean, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika, adierazle horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearen ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

#### G) Prebentzio neurriak eta funtzionamendu baldintzak ohiz kanpoko egoeretan.

G.1.– Instalazioa gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, sortu litezkeen emisioen eta hondakinen estimazioa egin beharko du enpresak, eta, dagokionean, haiek kudeatzeko eta tratatzekoa ere bai.

Instalazioa geldiaraztean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta ohiz kanpoko egoeretan sortutako hondakinak kudeatu beharko dira, bat etorritik hirugarren apartatuko E.2.3 “Instalazioan ekoiztutako hondakinen kudeaketa zuzena bermatzeko baldintzak” azpiapartatuan ezarritakoarekin, baina ez da beharrezkoa izango hondakin horiek baimendutako hondakinen zerrendan jasota egotea.

#### G.2.– Jarduera etetea.

Jarduerari lege hauek aplikatu behar zaizkio: Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea (27.5) eta Lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide eta estandarrak ezartzeko urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Horrenbestez, Refinería de Aluminio SLk jarduera-etete horren berri eman beharko dio ingurumen-organoari, bi hilabeteko epea igaro baino lehen; jakinarazpen horrekin batera, jarduketa-proposamen bat ere aurkeztu beharko da, entitate horrek ezar dezan noraino iristen diren bere betebeharrak eta beranduenez ere noiz hasiko den lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hasteko epea, bat etorritik ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 31.3 artikuluan xedatutakoarekin.

Jarduera utzi baino lehen, Refinería de Aluminio SLk instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, bat etorritik ebazpen honen hirugarren apartatuko E.2.3 azpiapartatuan ezarritakoarekin.

#### G.3.– Jarduera aldi baterako etetea.

Jarduera aldi baterako uztea eskatuz gero, Industriako Isurpenen Erregelamendua onartzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 13. artikuluan arautu bezala, Refinería de Aluminio SLk, aldi baterako uztearen eskabidearekin batera, agiri bat bidali beharko du instalazioa jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumen-baimen integratuko kontrolak eta eskakizunak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, instalazioa berriz abiarazi baino lehen, ziurtatu beharko da instalazioek egokiro funtzionatzen dutela, ingurumenean eragina izan dezakeen isurketarik edo emisiorik gerta ez dadin.

G.4.– Ezohiko funtzionamendu-kasuan aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Hargatik eragotzi gabe sustatzaileak aurkeztutako agirietan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak, ondorengo apartatuetan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Hondakin arriskutsuak eta produktu kimikoak erabiltzeak, besteak beste, lurzorua eta ura kutsatzeko arriskua eragin dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arrisku handiko lurzati gainazal guztiak iragazgaitzak izan beharko dute. Zolatak diseinatzean, kontuan hartuko dira drainatzeko eta efluentek biltzeko gailuak, ingurunean kutsatzaileak barreiatzeko bideak eragozteko.

b) Biltegitratzea.

Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak, ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegitratuko dira.

Hauts-itxurako produktuak gordetzeko, iragazkiak dituzten silo itxiak egongo dira.

Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegitratzeko instalazio horiek produktu kimikoak biltegitratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten entitateek emandako egiaztagiriak.

c) Instalazioetako prebentzioko mantentze-lanak.

Prebentzioko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura saihesteko; era berean, ezarritako neurrien jardun egokia bermatu beharko da. Ihesak gertatuz gero lurzorua (eta, hala badagokio, ura) babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako alderdi hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaitasuna), biltegitratzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), ihesei antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, fabrikako kolektoreen sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko isurketak biltzeko sistemak.

Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua (eta, hala badagokio, ura) kutsa dezakeen edozein egoera prebenitzeko.

Era berean, airearen eta ur-ingurunearen kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa eta abar) eta zaintza eta kontrolerako sistemen egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

Pabiloien barruan zolatak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira, edo, bestela, baimendutako kudeatzaile batek kudeatuko ditu.

d) Era berean, erregistro bat eduki beharko da, aldizka egindako mantentze-lanak eta hautemandako gorabeherak jasota uzteko.

e) Tangen hustuketa kontrolatzeko balio duen protokolo edo prozedura edukiko dute. Bertan, instalazioaren eraginkortasunari eragin diezaioketen isuriak lantegira joatea saihestu beharko da.

f) Larrialdirik gertatuz gero, berehala eta eraginkortasunez esku hartzeko beharrezkoak diren material guztiak edukiko dira, kantitate nahikoan: berriro ontziratzekeo erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunean isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta norbera babesteko ekipamendu bereziak. Gorabeheraren bat gertatuz gero jarduteko modua:

g) Materialak ez dira inoiz ere pilatuko solidoak edo lohiak euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoa kutsatzeko arriskua dakarten lekuetan.

h) Jarduteko protokolo bat eduki behar da, ingurunean ondorio negatibo garrantzitsuak eragin ditzaketan gorabeherak edo anomaliak gertatuz gero erabiltzeko. Protokoloak, gutxienez, honako gai hauek argi eta garbi zehaztu behar ditu, gerta daitezkeen gorabehera edo anomalia bakoitzarentzat:

– Egin beharreko jarduketak, hurrengo apartatuan zehazten den jakinarazpena agintariei helaraztea barne hartuta.

- Jarduketen sekuentzia.
- Jarduketa bakoitzaren arduraduna(k).

Ustekabeko isurketarik gertatuko balitz, isurketa berehala geldiaraziko da.

Larrialdi-egoeran berehala eta eraginkortasunez jarduteko beharrezkoak diren material guztien behar besteko kantitatea eduki beharko da: berriro ontziratzekeo erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei aurre egiteko produktu xurgatzaile selektiboak; segurtasuneko edukiontziak, kaltetutako ingurunea isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak, eta babes pertsonalerako ekipo egokiak.

i) Gorabeherarik gertatuz gero, agintariei jakinaraztea.

Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragiten dituen gorabeheraren edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, sustatzaileak, berehala, gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, betiere zuzenketa- edo euste-neurri egokiak hartu ondoren. Jakinarazpenean, gutxienez, alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Jatorriak eta kausak (unean zehaztu daitezkeenak).
- Berehala aplikatutako zuzenketa- edo euste-neurriak.
- Sortutako ondorioak.
- Epe laburrera aurreikusitako jarduketak, halakorik badago.

Gertakari edo arazo larriak edo ustekabeko isurketak edo emisioak izanez gero, SOS Deiak, Legutioko Udala eta AGA berehala jakinaren gainean jarri behar dira. Ondoren, gehienez 48 orduko epean, istripuari buruzko txosten xehatua bidali beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zein ordutan gertatu den.
- Haren iraupena.
- Ustekabeko emisiorik gertatuz gero, emaria eta isuritako gaiak eta ingurune hartzailean antzeman daitekeen eragina zehaztu beharko dira, haren analisisa barne hartuta.
- Mailak gainditu badira, isurketei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Ezohiko gertaera berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isurketa gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen orekari modu larrian kalte egin badieziaioke, titularrak berehala etengo du isuri hori, eta, horrez gain, gertaeraren berri eman beharko die Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Uraren Euskal Agentziari, AGAri eta babes zibilaren eta ingurumenaren arloan ardurak dituzten organismoek, baita SOS Deiak (112) larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

j) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten entitateek emandako egiaztagiria.

k) Hargatik eragotzi gabe aurreko apartatuan ezarritakoa, gerta daitezkeen gorabeherak edo arazoak saiheste aldera, jardueraren titularrak berehala jakinarazi beharko dio Ingurumeneko Sailburuordetzari instalazioko edozein etenaldi programatu izango dela, prozesu etengabe batekoa bada, baita aurreikusitako mantentze prebentiboak ere, ahalik eta denbora-tarte handienarekin.

l) Larrialdi-egoeretan babes zibilari buruzko araudian ezarritakoa bete beharko da, eta araudi horretan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira.

H) Neurri babesleak eta zuzentzaileak, bai eta ingurumena zaintzeko programa ere, aldatzeko egin ahal izango dira, eta halaber neurtu behar diren parametroak, neurketen maiztasuna eta parametroen mugak, hala komeni bada araudi berria indarrean jartzeagatik edo inplikaturako sistemen egiturari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza garrantzitsu berrietara egokitzeko beharragatik. Era berean, babes- zein zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa aldatzeko aukera egongo da, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

I) Urtean behin, martxoaren azken eguna baino lehen, Refinería de Aluminio SLk aurreko urteko emisio atmosferikoei eta uretara egindako isuriei eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio Ingurumeneko Sailburuordetzari, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko, bat etorri 508/2007 Errege Dekretuarekin.

Informazio hori bidaltzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako kanalak, sistemak edo aplikazio informatikoak erabiliko dira.

Ingurumen-adierazpena publikoa izango da; Ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen aurreikuspenetara doitu da (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu), eta une oro bermatu beharko da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

J) Instalazioan egindako aldaketak.

Instalazioetan aldaketarik egin ahal izateko, aldeztu aurretik honako helbide elektroniko honetan eskuragarri dagoen inprimakia bete beharko da:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/serv\\_proc\\_comunicacion/p\\_comu\\_20194\\_158\\_89\\_9329/procedures/proc\\_20194\\_158\\_89\\_9905/es\\_def/adjuntos/Formulario\\_modificaciones.docx](https://www.euskadi.eus/contenidos/serv_proc_comunicacion/p_comu_20194_158_89_9329/procedures/proc_20194_158_89_9905/es_def/adjuntos/Formulario_modificaciones.docx)

Organo honen onespena ere eskatu beharko da, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 10. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Industriako Isurpenen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.1 artikulua ezartzen ditu aldaketa funtsezkotzat jotzeko irizpideak.

Nolanahi ere, bat etorritik aipatutako urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan xedatutakoarekin, irizpide horiek orientagarriak dira, eta ingurumen-organoak kalifikatuko du eskatutako aldaketa, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat jota, bat etorritik Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 10. artikuluan ezarritako irizpideekin.

Era berean, proiektua aldatzen den kasuetan, aplikatzekoa izango da Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1.c) eta 7.2.c) artikuluetan xedatutakoa.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta aipatutako lurzoruak lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, okupatu beharreko kokalekuaren lurzoru-kalitatearen adierazpena eduki beharko da aldaketa gauzatu aurretik, bat etorritik Lurzoru Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoarekin».

«Seigarrena.– Ingurumen-baimen integratua ofizioz berrikusiko da kasu hauetako edozeinetan:

a) Instalazioak sortutako kutsadura dela eta, komeni da mugako emisio-balioak berrikustea, edo beste batzuk ezartzea.

b) Isurketak nabarmen murriztu daitezkeenean, teknika erabilgarri onenetan egindako aldaketa handien ondorioz gehiegizko kosturik izan gabe.

c) Prozesuaren edo jardueraren funtzionamendu-segurtasuna dela eta beste teknika batzuk erabili behar badira.

d) Urei buruzko legedian ezarritakoaren arabera, arroaz arduratzen den organismoak irizten badio badirela ingurumen-baimen integratua berrikustea justifikatzen duten inguruabarrak, Estatuko Administrazio Orokorrak kudeatzen dituen arroetako jabari publiko hidraulikora isurtzeari dagokionez. Kasu horretan, arroko organismoak, txosten lotesle bidez, organo eskudunera joko du ingurumen-baimen integratua eman dezan, gehienez hogeiguneko epean hasteko aldaketa-prozesua.

e) Instalazioari aplikagarri zaion sektoreko legediak hala eskatzen badu, edo, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 22.3 artikuluari jarraikiz, beharrezkoa bada ingurumen-kalitateko arau berriak edo berrikusiak betetzea.

f) Aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzen bada.

g) Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra ikusten bada, bereziki inplikaturako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.

h) Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharren arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzekoak akastunak direla egiaztatzen bada.

i) Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 26. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatueta ezarritakoaren araberrako analisia eginda, aldatu egin behar dela ondorioztatzen bada.

Ingurumen-baimen integratua berrikustek ez dakar kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, hala ezarrita baitago abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 26.5 artikuluan».

«Zortzigarrena.– Honakoek eragingo dute baimen hau iraungitzea:

– Residuos de Aluminio SLren nortasun juridikoa iraungitzea, indarrean dauden arauak aurreikusitako kasuetan.»

## II. ERANSKINA

## ALEGAZIOEN ANALISIA

## JENDAURREKO INFORMAZIOAREN IZAPIDEA

Ingurumen-organoak ingurumen-baimen integratua funtsean aldatzeko prozeduraren barruan egindako jendaurreko informazioaren izapidean, hainbat alegazio jaso dira, eta, laburbilduta, jarraian azalduko ditugu, ingurumen-organoak horri buruz egindako gogoetekin batera.

## 1.– Jarduerari egindako kontrolari dagokionez.

Erantzuna: Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren III. kapituluaren zehazten dira jarduera-mota hori kontrolatzeko baldintzak. Alegatutako kontrol-faltari dagokionez, jakinarazten dizut Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoak, bere ikuskapen-lanean, aipatutako legerian adierazitako kontrol-maiztasuna bete duela. Ildo horretan, IPPC jardueren segimendu-proiektuaren barruan, 2024. eta 2021. urteetarako programatutako ikuskapenak egin dira instalazioan. Ikuskapen horien emaitzak argitaratu egin dira, aipatutako legerian jasotako eskakizunak betez.

Bestalde, atmosferara egindako emisioak ikuskatzeko erakunde egiaztatuak kontrolatzeko proiektuaren barruan, 2021ean, ingurumen-organoak ikuskapena egin zuen tximinian egiten ari ziren kontroletan.

## 2.– Ingurumen-organoak ekipo mugikorren edo estatikoen bidezko kontrola gauzatzea.

Erantzuna: titulu gaitzaileak enpresari ezartzen dizkion betebeharrak bat da jarduerak ingurumen-legeria betetzen duela egiaztatzen duten erakunde egiaztatuak aldi behin egin beharreko kontrolak egitea. Kontrol horien emaitzak Ingurumen Organoari aurkeztu zaizkio, araudia betez. Horiek egiaztatu egin dira, eta etorkizunean egiten diren kontrolak ere ikuskatze-lanetan berrikusiko dira.

Ikuskapen-jardueran gehiago sakonduz, adierazten da airearen kalitateari buruzko bi kanpaina egin zirela enpresaren inguruetan, ingurumen-organoaren ekipamenduaren bidez: lehena, 2021eko urtarrilaren 28a eta 2021eko apirilaren 28a bitartean, eta bigarrena, 2021eko uztailaren 8a eta 2021eko irailaren 29a bitartean. Hori dela eta, ingurumen-organo honek 2025. urtean kanpaina berri bat egiteko asmoa duela jakinarazi da.

## 3.– Baimenean ezarritako mugako balioei dagokienez.

Erantzuna: 2.5.a) epigrafean barne hartutako jarduera jasota dago Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 1. eranskinean. Horrek esan nahi du instalazioak Ingurumen Baimen Integratua (IBI) izan behar duela legez jardun ahal izateko, eta baimen horretan ezarritako emisioen muga-balioak (EMB) Europan onartutako BREF agirien arabera finkatu behar direla, Industria Emisioei buruzko 2010/75/EB Zuzentaraua betetzeko.

2025eko azaroaren 11, asteartea

## III. ERANSKINA

## ALEGAZIOEN ANALISIA

## ENTZUNALDIAREN IZAPIDEA

2024ko urriaren 8an, Refinería de Aluminio SLk (REFIAL) entzunaldi-izapidean bidalitako ebazpen-proposamenari buruzko alegazio-idazkia aurkeztu zion ingurumen-organuari. Agirian, gai hauek jasotzen dira:

1.– 1. orrialdean ez dira aipatzen merkataritza-sozietateak 2014ko martxoaren 19an –237.542 erregistro-idazpenarekin– eta 2014ko maiatzaren 26an –427.726 erregistro-idazpenarekin– aurkeztutako funtsezkoak ez diren aldaketak, administrazio-isiltasunez onartuak; aldaketa horiek, hurrenez hurren, 101011\* eta 100308\* EHZen kudeatzaile gisa altan emateari buruzkoak ziren. Egia da, baina, bi hondakinak E.1.1 atalean jasota daudela. Hondakin onargarriak.

Erantzuna: Aipatzen diren aldaketak Ingurumeneko sailburuordearen 2014ko ekainaren 2ko Ebazpenaren bidez ebatzi eta baimendu ziren, eta ebazpen honetan jasota daude.

2.– 10. orrialdean, hau dio «eta 3.400 tona Refinería de Aluminio SLren pareko landan», eta aurkeztutako proiektu teknikoarekin koherentea izateko, eskatzen da zuzendu eta hau jartzea: «3.400 tona San Antolin kalea 10ean dagoen landan».

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

3.– 10. orrialdean, hau dio: «Ekoizpen-prozesuan erabiliko diren lehengaiak eta gai osagarriak kamioietan iristen dira. Estalkipean biltegitratuko dira denak».

Ez luke estalkipean ezarri beharko, aintzat hartuta landan biltegitratzea aipatu duela 12. orrialdean. Zuzentzeko eskatu da. Azpimarratu behar da legeak ez duela behartzen hauts-itxurakoak ez diren hondakin ez-arriskutsuak estalkipean biltegitratzera.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

4.– 10. orrialdean gehitu behar da, laginak kentzeko arragoa motako labeek gain, merkataritza-sozietateak dimentsio txikiko labe birakari bat duela laginak kentzeko ere, eta, gainera, 05 fokura bilduta dagoela, AAI00316\_MNS\_2022\_002 espedientearen esparruan jakinarazi eta ebatzi zen bezala.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

5.– 11. orrialdean, labe birakarietako zepari dagokion puntuan. Lehen paragrafoan, hau esaten da: «Zepa zepa-hozkailu batera pasatzen da, zeinak ziklo bakoitzeko 9 tonako edukiera baitu. Han, ura gehituta (lurruna 06 fokura birbideratzen da), emisio barreiatuak eta zepako materialaren oxidazio-erredukzioa saihestea lortzen da...».

Alegatzea erabaki da, esaldi hori zuzentzeko: Ura danbor hoztailearen kanpoaldea hozteko erabiltzen da, zepak ukitu gabe. Zepak hoztu egiten dira danborraren barrualdearekin kontaktuan jartzean, eta hozte azkar horrek zepan atxikitako metalaren oxidazioa murrizten du. Hauts-emisioak kontrolatzeko, hozkailuaren ahoa 05 fokura birbideratzen da, eta lurrun-deskarga 06 fokura.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

6.– 12. orrialdean: REFIALek ez du partida guztien analisi metalografikorik egin, eta ez du horretarako baliabide propiorik; beraz, erreferentzia hori kentzeko eskatzen da. F.1 Hondakin onargarriak.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

7.– 13. orrialdean, «hondakin arriskutsu gehienak gatz-zepak dira (gutxi gorabehera 5.040 t/urtean). Halaber, mahuka-iragazkietatik datozen 864 tona hauts inguru sortuko dira urtean». Zifrak ez dira egokitu proiektu teknikoan jakinarazitakora, eta E.2.3.1. puntuko taulara egokitu behar dira. Hondakin arriskutsuak 30.000 T gatz-zeparentzat eta 3.500 T iragazki-hautsentsat).

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

8.– 13. orrialdean, hau dio: «Instalaziotik atmosferara egingo diren emisio konfinatuak... izeneko tximiniei dagozkion bi emisio-fokurekin lotuta daude».

Ageri diren fokuak ez datoz bat E.2.1.2 apartatuan adierazitakoekin. Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

9.– 14. orrialdean, ebazpenaren «C. Ingurumen-erantzukizuna» puntuari dagokionez, ez du jasotzen entitateak AAI00316\_MS\_2019\_001\_MS\_2020\_001 proposamenera egokitutako ingurumen-arriskuen analisia (IAA) egina duenik: MARMA 01341 espediente-zenbakia, 2023ren irailaren 15ean entregatua (2023RTE01111966 erregistro-idazpenarekin). Horregatik, Administrazioak baloratu gabe dauka oraindik. Beraz, adierazi behar da entregatzeko betebeharrak hori beteta dagoela, arriskuen azterketa eguneratua aurkeztu baita.

Erantzuna: Lege-eskakizun orokorra da.

10.– 15. orrialdeko E.1 atalean, hau dio: «Norberaren hornidurak, gutxienez, sugar-puntua zehazteko aukera eman behar du». Jasotzen diren EHZentzat, ez da beharrezkotzat jotzen parametro horiek neurtzea, eta, beraz, ez da horiek kentzea eskatzen. Parametro hori neurtzeko betebeharrari eustea erabakiz gero, parametro hori azpikontratatu egingo litzateke.

Argi utzi nahi da, halaber, baliabide horietako batzuk Inatec Fundazioan daudela, Goiaingo industrialdean bertan, eta ez REFIALen bertan.

Erantzuna: Bat etorri ebazpenean bertan xedatutakoarekin, «hondakin arriskutsuak onartzeko bestelako parametroak zehaztu behar badira, kanpoko laborategi homologatuen bidez egin ahal izango da. Horretarako, kontratu bat sinatu beharko da, laborategiek emango dituzten zerbitzuen garrantzia eta ezaugarriak agiri bidez egiaztatzeko».

11.– 17. orrialdeko F.1.2 azpiapartatuan adierazten da sarrerako kontrolean Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak onartutako tratamendu-kontratuan ezarritako egiaztapena egitea, baina ez da inolako mekanismorik ezarri kontratu horiek onartzeko, eta sektoreko legeriak ez du esaten Administrazioak onartu behar dituenik.

Erantzuna: Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 35 artikuluan eskatutakoari erantzuna eman dio.

12.– 18. orrialdean, hau dio «Instalazioan onartutako hondakinen biltegitratzea halako moldez egin beharko da, non hondakin horiek estalkipean eta haizeak arrastatzea saihestuta garraiatuko diren biltegitik eta prozesuan elikatzeraino».

Hauts-itxurako hondakinak eta soltean jasotakoak habeartearen barruan gorde beharko dira, multzotan edo gelaxketan, tratamendua egiteko unea iritsi arte.

Ez luke estalkipean ezarri beharko, aintzat hartuta landan biltegitratzea aipatu duela 1. aparatuan: ezinezkoa da zehaztaperen hori betetzea. Azpimarratu behar da legeak ez duela behartzen hauts-itxurakoak ez diren hondakin ez-arriskutsuak estalkipean biltegitratzera.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

13.– 19. orrialdean, hau dio: «ebazpen honen E.2.2 azpiapartatuan jasoko dira, apartatu honetan araututako artxiboan».

Akatsa da, E.1.2 jarri beharko luke. E.2 puntuak atmosfera babesteari egiten dio erreferentzia, eta ez du zerikusirik paragrafo horrekin.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

14.– 19. orrialdean, hau dio «E.1.6. Estaturik kanpotik inportatutako hondakinak. Baldin eta kudeatu beharreko hondakinak beste estatu batzuetakoak badira, nahitaez bete beharko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan –hondakinen lekualdaketei buruzkoa– ezarritakoa».

Araudi hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko apirilaren 11ko 2024/1157 (EB) Erregelamenduak indargabetu zuen, hondakinak lekualdatzeari buruzkoa; hori da gaur egun indarrean dagoen araudia.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

15.– 19. orrialdeko «E.2.1.2. Fokuak identifikatzea. Katalogazioa» azpiapartatuan:

03 fokua 12. orrialdean dago izendatuta, eta 2015eko otsailaren 24ko ebazpen erreferentziatuaren bidez eman zitzaion alta; ez da ageri taula horretan, akats baten ondorioz ezabatu dela ulertzen da.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

16.– 19. orrialdean, merkataritza-sozietateak ulertzen du atala honetan ageri den 100029105-4D nomenklatura akatsa dela, eta 100029105-04 izan beharko lukeela.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

17.– 20. orrialdean, indarrean dagoen baimenari dagokionez, hau zioen paragrafoa kendu egin da: «Urte jakin batean foku sistematiko batek foku ez-sistematiko gisa funtzionatzen badu, ez da foku horren gaineko kontrolik egin beharko urte horretan. Ondoko urtean egin beharko da, baldin eta kontrola salbuesteko baldintzek ez badute bere horretan jarraitzen». Ingurumena zaintzeko dagokion programan justifikatu beharko da inguruabar hori.

Airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko 34/2007 Legea indarrean dago, eta, beraz, legezko aldaketarik ez dagoenez, merkataritza-sozietatean uste du paragrafo hori ez dela berriz jaso behar.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

18.– 20. orrialdean, 5. emisio-fokuak «Galdaketa-labe birakari baskulagarria 2 eta mantentze-labeak» bi by-pass sistema ditu instalazioaren segurtasun-elementu gisa.

Enpresak jada ez du by-pass sistemarik, eta, beraz, esaldi hori kentzeko eskatzen da. Puntu honi buruzko azalpen teknikoa erantsi dugu (II. eranskina). Reydesak kolektorera isurgune bakarra du, puntu horretan 1l gisa identifikatua. 2l eta 3l ez dira kolektorera isurguneak; hortaz, ebazpenetik kentzea eskatzen da.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

19.– 20. orrialdean, hau dio: «Fokuen sekzioak, neurketa-guneek, laginketa-puntuek, neurketa-portuek, irisgarritasun-baldintzek, segurtasun-neurriek eta zerbitzuek bete beharko dute atmosferaren arloan eskumenak dituen Sailak argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritakoa».

Errepikatutako paragrafoa, E.2.1.4. puntuan ere agertzen da.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta paragrafoa E.2.1.4 apartatuan soilik gorde da.

20.– 22. orrialdean, «Isuri barreiatuak murrizteko, jarduera hauek gauzatuko dira». Merkataritza-sozietateak alegatzen du puntu hori ezabatu edo ñabartu egin behar dela, ez dagoelako horrelako ekiporik, eta ez delako oso ondo ulertzen zer ekipo-motari dagokion.

Erantzuna: Aipatutako eskakizuna 2012ko uztailaren 23ko Ebazpenaz geroztik baimenduta dago. Ez zen ebazpen horren aurkako errekurtsorik izan, eta, beraz, orain ezin da errekurtsorik aurkeztu.

21.– 22. orrialdeko «E.2.2.2. Gehienez isur daitezkeen emariak eta bolumenak» azpiapartatuan, «Lingote-dorreak eta euri-urak hozteko urak» apartatuan, urteko 15.000 m<sup>3</sup> kendu behar dira, urteko 6.141 m<sup>3</sup>-tik, guztira. AAI00316\_MNS\_2024\_003 dela eta; urteko 15.000 m<sup>3</sup> kendu dira kontsumoen apartatutik (jada datu zuzena ageri da), baina ez dira kendu isurketenetik.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

22.– 22. orrialdean, «E.2.2.3. Emisioen balio-mugak» azpiapartatuan, merkataritza-sozietateak, Otua enpresa-taldeko kide gisa, industrialdeko uren kudeatzaileari agiri teknikoak helarazi dizkio, azaltzeko 23-24. orrialdean agertzen diren parametro batzuk eta horiei dagozkien balio maximoak ezin direla bete enpresarentzat teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren bitartekoekin. Beraz, taula hori gaur egun indarrean dagoenaren alde kentzeko eskatzen da, harik eta merkataritza-sozietateak Araba Garapen Agentziari egindako alegazioak argitu arte.

Zehazki, merkataritza-sozietateak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu zuen, kautelazko neurriak eskatuz hauek aldatzeko ebazpenari: AAI0351 (2024/07/16an, 2024RTE00847634 idazpenarekin), AAI0361 (2024/07/17an, 2024RTE0085379 idazpenarekin) eta AAI0362 (2024/07/17an, 2024RTE0084452 idazpenarekin). Aipatutako kasu guztietan isuriaren kalitatea hobetzeko proposamena erantsi zen, zeina Administrazioak balorazioa eman zain baitago idazki hau idatzi den egunean; administrazio-isiltasunaren bidezko kautelazko neurriekin.

Horrez gain, adierazi nahi da azaltzen den taula ez dela AGAk gaur egun indarrean dagoen taulatzat jotzen duena, bere Administrazio Kontseiluak onartutako taulen arabera.

Erantzuna: AGAk Goiain industrialdeko saneamendu-sarera isurtzeko elementu kutsatzaileentzako emisioen muga-balioen taula berrikusi du, eta ebazpenaren edukia aldatu du.

23.– 26. orrialdean, hau dio: «Hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzean identifikazio-agiri bat ere aurkeztu beharko da», baina, merkataritza-sozietatearen ustez, «beste autonomia-erkidego bat» soberan dago; izan ere, gaur egun, Eusko Jaurlaritzak 553/2020 Errege Dekretuari heltzea erabaki du, baita erkidego barruko hondakinei dagokienez ere.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

24.– 26. orrialdean, hau dio: «Baldin eta hondakinak Espainiatik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan – hondakinen lekualdaketei buruzkoa– ezarritakoa bete beharko da».

Araudi hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko apirilaren 11ko 2024/1157 (EB) Erregelamenduak indargabetu zuen, hondakinak lekualdatzeari buruzkoa; hori da gaur egun indarrean dagoen araudia.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

25.– 26. orrialdeko «E.2.3.1. Hondakin arriskutsuak» azpiapartatuan, EHZ 100323\* kodea duen hondakina R4 kudeaketa-kodearekin ageri da. Okerra da, eta ez dator bat aurkeztutako agiriekin. D9 kudeaketa-kodea jarri beharko luke. Sailburuordetzako IPPC zerbitzuari 2015eko abenduaren 18an jakinarazi zitzaion hori (1.037.998 erregistro-idazpenarekin).

Erantzuna: 100323\* hondakina hondakin balorizagarria da, eta, beraz, kudeaketa horretara joan behar da. Ez bada nahikoa gaitasun hori kudeatzeko, kantitate ez-balorizagarria justifikatu beharko dute ingurumen-organo honetan, eta zati ez-balorizagarria egonkortu egin beharko da zabortegean utzi baino lehen.

26.– 26. orrialdean, hau dio: «Prozesuan sortutako gatz-zepak biltegitratzeko parkea estalkipean kokatuko da; lurzoru estankoak izan beharko ditu, eta kutsatutako likidoak jasotzeko sistema edukiko du, ura husteko sistemara joan ez daitezela».

Entitateak adierazi nahi du hondakin solido kiskalia dela, eta estalkipean biltegitratzen dela, makina astunak maiz igarotzen diren leku batean; beraz, eremu horretan kutxatila itsu bat mantentzea oso zaila izango da, makinak pasatzean kutxatila erabilezin geratuko baita.

Erantzuna: Eskakizun hori MNS\_2020\_004k baimentzen du, eta haren ebazpena 2020ko ekainaren 30ekoa da. Ez zen ebazpen horren aurkako errekurtsorik izan, eta, beraz, orain ezin da errekurtsorik aurkeztu.

27.– 27. orrialdean, hau dio: «Mauken iragazkietako hautsak» eta «mauken iragazkiak» hondakinen kasuan, hondakin horiek gaur egun indarrean dagoen Europako hondakin-zerrendan zeharka islatzen direnez, Refinería de Aluminio SLk hondakin arriskugabetzat hartzeko eskatu ahalko dio organo honi, karakterizazio egokiaren bidez horrela egiaztatzen bada.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

28.– 28. orrialdeko k) apartatuan, indarrrik gabe utzitako araudiari buruzko erreferentzia bat dago. Aparatu elektriko eta elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretua Aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuak ordezkatu du.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

29.– 28. orrialdeko p) edo) atalean, hau dio: «datuak jaso diren urtearen hurrengo urteko martxoaren 1a baino lehen, eta dagokion ingurumena zaintzeko programaren barruan, laburpen-memoria bat».

Ingurumena zaintzeko programaren (IZP) entrega martxoaren 31 baino lehenago denez, ulertzen du ageri dena akatsa dela, eta zuzentzeko eskatzen da.

Erantzuna: Data bat dator 7/2022 Legearen 65.1 artikuluan ezarritakoarekin, zeinak arautzen baitu artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria martxoaren 1a baino lehen igorri beharra.

30.– 29. orrialdeko t) apartatuan, hau dio: «Baldin eta hondakin arriskutsuak Estatutik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan –hondakinen lekualdaketei buruzkoa– ezarritakoa bete beharko da».

Araudi hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko apirilaren 11ko 2024/1157 (EB) Erregelamenduak indargabetu zuen, hondakinak lekualdatzeari buruzkoa; hori da gaur egun indarrean dagoen araudia.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

31.– 30. orrialdeko «E.2.3.2. Hondakin arriskugabeak» azpiapartatuan, EHZ 19 12 02 kodeari dagokionez, kantitateetan, 0,3 T jasotzen da, baina, berez, 300 T jarri behar luke. Kasu honetan, merkataritza-sozietateak aurkeztutako proiektu teknikoaren akats bat da (300 Kg jartzen ditu, 300 T jarri beharrean), baina izapide hau baliatu nahi da zuzenketa eskatzeko.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

32.– 31. orrialdeko K apartatuan, hau dio: «Baldin eta hondakin arriskugabeak Estatutik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan –hondakinen lekualdaketei buruzkoa– ezarritakoa bete beharko da».

Araudi hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko apirilaren 11ko 2024/1157 (EB) Erregelamenduak indargabetu zuen, hondakinak lekualdatzeari buruzkoa; hori da gaur egun indarrean dagoen araudia.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

33.– 31. orrialdeko «E.2.4. Bilgarriak merkaturatzea» azpiapartatuan, hau dio: «Enpresak produktu ontziratuak eta enbalajedunak merkaturatzen baditu, bilgarri horien gaineko informazioa eman beharko du urtero, martxoaren 31 baino lehen; horretarako, Ontzien Gaineko Urteko Adierazpena egin beharko du. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko programa bidaliko du, urtean urtekoa».

Kentzea eskatzen da, akats bat baita. Obligazio hori, aurreko ontzi-araudiaren lehen xedapen gehigarriaren ondoriozkoa, Ontzien eta ontzi-hondakinen abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuak indargabetu du, Sailburuordetzak berak adierazi zigun, erantsitako postan (l. eranskina), obligazio horiek iraungita zeudela; eta Ontzien eta Ontzi-hondakinen abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 43. artikuluan ezarritako ontziraturako produktuen banatzaileen betebeharrekin ordezkatzeko zuzentzea.

Hori agertzen da jada puntuko bigarren paragrafoan. Lehen paragrafoa okerra da, eta kentzea eskatzen da.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

34.– 31. orrialdeko «E.2.5 Lurzorua babestearen inguruko baldintzak» azpiapartatuan, ez du jasotzen entitateak jada aurkeztu duela IPPC instalazioetarako lurzoru kutsatuen eta lurpeko uren arloko arau-eskakizunen agiriategina (lurzoruen agiri bakarra), 20219ko abenduaren 11n aurkeztua 2019RTE00488234 erregistro-idazpenarekin, AAI00316\_DOC\_2019\_003 prozeduraren barruan, eta Administrazioak oraindik baloratu gabe duena.

Merkataritza-sozietatearen ustez, aipatutako legedian adierazten den bezala, Administrazioak lehen aipatutako proposamenari buruzko iritzia eman behar du, ingurumena zaintzeko neurriak ezarri aurretik, oraingo ebazpenean jaso ez direnak.

Erantzuna: Lege-eskakizun orokorra da.

35.– Adostu gabeko kontrolak, neurketa-maiztasunaren definizioa eta batez besteko balioen zutabea zehazteko ezintasuna.

35.1.– 37. orrialdeko «F.2. Isurpen-uraren kalitatearen kontrola» azpiapartatuan, puntuan ageri den taula ez dator bat merkataritza-sozietateak industrialdeko ur-kudeatzaileari buruz dituen jarraibideekin, hark ez baitigu inoiz aukeratu 1I, ur sanitarioen gaineko kontrolik, eta, hala ere, taula honetan agertzen dira.

Erantzuna: Orain arte, AGAk ez du beharrezkotzat jo 1I isurgunearen laginak hartzea, handik poligonoko saneamendu-kolektore orokorrera isurtzen diren urak ur beltzak bakarrik baitira. Hala ere, AGAk sailburuordetza honetara igorritako idazkian, honako hau adierazten zen:

– Refinería de Aluminio SL enpresak hainbat isurgune ditu industrialdeko saneamendu-kolektore nagusira, enpresa-jarduera bakoitzeko bat; beraz, enpresak isurguneak bateratu beharra du, eta, horretarako, beharrezko kanalizazioak egin behar ditu dagokion lurzatiaren barnealdetik.

– Enpresak 3I eta 1I isurguneak desueztatuko ditu. Era berean, isurketak kontrolatzeko kutxatila berria egingo du, eta AGAk zehaztuko ditu kutxatilaren neurriak. Horretarako egin behar diren kanalizazio guztiak enpresaren lurzatiaren barnean egin beharko dira. Erregistro guztiek bisitagarriak izan behar dute, ezin da txertaketarik egin, ezta ezkutuko erregistrorik utzi ere. Gaur egun, erregistro ezkutu bat dago. Erregistro hori ikusi ahal izan beharko da, baldin eta lurzatiatik poligonoko saneamenduko kolektore nagusirako hargunearen trazadura sartzen bada.

– Enpresak hormigoiz itxi behar ditu putzu inhabilitatuetan dauden lurzatiako isurgune guztiak, isurguneak bateratu ondoren.

– AGAk Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari 2020ko otsailaren 13an egindako jakinarazpenak REFIAL enpresari baimena eman zion hiru isurguneen mantentze-lanak egiteko gaur egun enpresak duen industrialdeko saneamendu-kolektore nagusian. Horren ondorioz, isurketak kontrolatzeko kutxatila bat eta 3I isurgunean laginak hartzeko dagokion armairua egin behar izan ziren. Hori dela eta, AGAk eskatu duen isurketen kontrol-kutxatila berria egiteko, eta eraisteko kontrol-kutxatila egiteko ardura izango du. Gainerako jarduketa enpresak egingo du.

35.2.– Puntu horri erantsitako taulari dagokionez, lehenengo orrian «AGA» ageri da neurketen kontrol-maiztasuna ezartzeko. Merkataritza-sozietateak dio puntu horrek urratu egiten duela Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testuategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.28 artikulua, zeinaren bidez emisioen muga-balioak iraupen jakin baterako ezarri behar baitira. Kontrol horietarako iraupen jakin bat ezartzeko eskatzen da. 46. orrialdean agertzen den «AGAk beharrezkotzat jotzen duen maiztasunarekin» esaldia aipatutako artikulua aurkakoa da.

Erantzuna: Ebazpenaren taulan aldatu egiten da, kontrol-maiztasuna adieraziz.

35.3.– d) Sustatzaileak, isurgune bakoitzeko, lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izan beharko da, edo, bestela, lagin puntual adierazgarria.

Entitateak zera alegatu nahi du: orain arte ez dira lagin konposatuak hartu, eta, beraz, ezin da batez besteko baloien zutabea zehaztu.

Erantzuna: AGAk hamabostero hartzen ditu enpresaren isurketen laginketa puntualak. Ingurumen Sailburuordetzara bidalitako idazkian, AGAk eskatu zion enpresari emari-neurgailua jartzeko bere isurpen-bolumena etengabe neurtzeko. Era berean, emari-neurgailuaren eta enpresaren isuriaren karakterizazio jarraitua egiteko eskatutako zunda-sistemaren ezaugarriak erantsi zituen, eta 3 hilabeteko epea eman zuen enpresak proposamen tekniko bat aurkez zezan, AGAko sail teknikoak onartzeko. Proposamen horretan, aipatutako tresneriaren instalazioa eta martxan jartzeko aurreikusitako lan-programa jaso ziren. Gaur arte, AGAk ez du proposamen tekniko hori jaso.

REFIALek AGAk eskatutako jarduerak egin behar ditu. Bestela, ezin da TEOen arabera definitutako isurketa-kontrola egin, eta, beraz, ezinezkoa da jarduera horien arabera betetzen den zehaztea.

Hala ere, E.2.2.3 puntuko taulak ohar bat du, eta, han adierazten denez, TEOen araberako laginketa integratu baten bidez GEB kontrolatu behar zaien elementuen kasuan eta enpresak instalatu gabea badu AGAk horretarako eskatutako sistema, laginketa puntual baten bidez egingo da kontrola. Era berean, baldintza hau F.2.d) apartatuan aipatzen da.

36.– 38. orrialdean, merkataritza-sozietateak hirugarrenek agindu eta burutzen dituzten analitikak ordaintzeko aukera ematen duen lege-oinarria ezabatzea edo, Administrazioak justifikatu beharra izatea. Merkataritza-sozietateak hainbat prozeduratan eskatu dio AGAri eragin hori ahalbidetuko duen araudia justifikatzeko, baina orain arte ez du lortu AGAren erantzun egokirik. Puntu hori ezabatzeko eskatu da.

Erantzuna: AGAk uste du eskatutakoa baietsi egin behar dela, REFIALi jakinarazita enpresak eskatu behar duen isurketa-baimenean ezarriko direla haren isurketa kontrolatzeko lanen ordainketari buruzko gaiak.

Sailburuordetza honi bidalitako idazkian adierazten den bezala, enpresak Goian industrialdeko saneamendu-kolektore nagusira egiten duen isurketaren bolumen erreala ezagutzen duenean, REFIALek beste baimen bat eskatu beharko dio AGAri poligonoko saneamendu-kolektore nagusira isurtzeko, bere jarduerari dagozkion datu errealean arabera; izan ere, gaur egun, REFIALek egiten duen jardueraren isurketa babesten ez duen isurketa-baimena du.

37.– Orrialdean, hau dio: «Urtean behin, otsailaren azken eguna baino lehen, Refinería de Aluminio SLk aurreko urteko emisio atmosferikoei eta uretara egindako isuriei eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen isurtze eta Transferentzia Inbentarioa osatu eta eguneratuta edukitzeko, bat etorri 508/2007 Errege Dekretuarekin».

Prozedura horri buruzko Eusko Jaurlaritzaren orrian: <https://www.euskadi.eus/comunicacion/prtr-registro-europeo-de-emisiones-y-transferencias-de-contaminantes/web01-tramite/es/>

Martxoaren 31 baino lehen emango direla ezartzen du, ez otsailaren 28a baino lehen. Data zuzentzeko eskatu da.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

38.– Zortzigarren puntua (45. orrialdea) – Hau dio «Honako hauek eragingo dute baimen hau iraungitzea: – Ecoenergia Reydesa SLren nortasun juridikoa iraungitzea, indarreko arauak aurreikusitako kasuetan».

Uste dugu akats bat dela eta Refinería de Aluminio SLk jarri behar lukeela, hark baitu gaur egun baimena, ebazpen-proposamenean bertan adierazten den bezala; eta Ecoenergia Reydesa SL sozietatea egun desagertuta dago.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

39.– 46. orrialdeko hirugarren errekerimenduan, «Hirugarrena.– Hiru hilabeteko epea ematea Refinería de Aluminio SLri, kontu hauei buruzko erantzuna eman dezan: Isurguneen koordinatuei eta isurketen gehieneko emariei eta bolumenei dagozkien datuak helarazi beharko ditu».

Uste dugu akats bat dela, eskaera egin baitzitzaion AAI00316\_MNS\_2020\_004 espedientearen esparruan, zeinari erantzuna eman baitzitzaion 2020ko abuztuaren 17an aurkeztutako datuekin (2020RTE00454793 erregistro-idazpenarekin), eta, gainera, datuak jada sartuta daude baimenean, E.2.2.1 apartatuan. Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena; lehen aipatu dugun aldaketa bakarra.

«Lingote-dorreak eta euri-urak hozteko urak» apartatuan, urteko 15.000 m<sup>3</sup> kendu behar dira, guztira urteko 6.141 m<sup>3</sup>-tik. AAI00316\_MNS\_2024\_003 dela eta; urteko 15.000 m<sup>3</sup> kendu dira kontsumoen apartatutik (jada datu zuzena ageri da), baina ez dira kendu isurketenetik.

Erantzuna: Alegazioa onartu da, eta ebazpenaren edukia aldatu da.

40.– 47. Orrialdea. Ez dago EJren oharrik alegazioen analisisian, 4. orrialdean baietz esaten den arren.

Erantzuna: prozeduraren fase honetan alegazio horien erantzuna II. eranskinean sartu da.